



Eskola txikiak bizirik

Arg.: M. Albisu



h e m e n

DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA

TFNOA./FAXA: 88 46 41

KALITATEA ETA ZERBITZUA ZURE ESKURA

MERKEAGO

aurkitzen baduzu,

Diferentzia

ordainduko dizugu

Ekainaren 9tik 21era

Del 9 al 21 de Junio

Queso Tierno
Mini EL CIGARRAL
Por piezas, kg.

979



Leche Entera
LA POLESA Brik 1l.

66



Cacao
Soluble NESQUIK 3 Kg.

1.189

Aceite de Oliva
KOIPE
0,4° ó 1°, 1 litro

375



Detegente Lavadora
DIXAN 4,5 Kg.

845

PRYCA

GOIERRI - OLABERRIA

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:
Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1
(Postetxe gainean)
124 posta-kutxa
20240 Ordizia
Tfnoa: 88 96 12
Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre eta Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Arano,
Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Aitor Calvillo, Joseba Telleria,
Xabier Urteaga, Rufino Iraola,
Koldo Urrestarazu, Urko Irastorza,
Josune Aldabe, Edurne Albizu,
Aitziber Murua, Joxepa Madariaga,
Joxe Arozena eta Arantzazu Agirre.

**Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.**

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga
9. Oñati)

Tirada: 6.500 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Nekazal elikagaien herrialde
arteko azoka Ordizian**

Bihar, ekainak 7, izango da Ordizian, nekazal elikagaien herrialde arteko azoka. Bigarren urtea da aurtentzen. Lapurdiko Ezpeleta, Nafarroako Altsasu eta Ordiziaren artean egiten den azoka da. Txandakatuz, hiru herrietan egiten da. Oraingoan, beraz, Ordizian txanda da.

Azoka 4 gunetan banatuko da. Plaza Nagusian, Arboledan eta Alde Zaharrean honako produktu hauek izango dira ikusgai: barazki, landare eta lore erakusketa eta salmenta; Iparralde, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko nekazaritzako elikagaien produktu erakusketa eta salmenta: foie, gazta, sagardoa, txakolina, ardoak, eztia, piperminak, txistorra, patxarana, kontserbak,

euskal pastela, ogia, babarrunak eta txokolateak; Getariako Jatorrizko Izen dapieneko txakolin dastaketa ere izango da.

Garagartza plaza zaldia-
ren gunea izango da. Bate-
tik, zaldi erakusketa izan-
go da. Arraza ezberdinetako zaldiak izango dira ikusgai: arabeak, ingelesak, espainiarrak, gurutzatuak, 'tres sangres'ak, angloarabeak, sirexak eta pottokak. Zaldiak nola perratzen diren ikusteko aukera ere izango da. Horrekin batera, hipika-gaiak izango dira ikusgai eta salgai.

Ohi ez bezala, Ordizia-
ko azoka, beraz, larunba-
tez izango da, arratsaldean.
Ordutegia hauxe duzue:
16:30etatik 21:00etara.

BOTA BERTSOA



Aitziber Garmendia

**Zer egingo zenuke
loteria takatuz gero**

*Doinua: Zortziko nagusi-
ko edozein*

Atzo gauean egondu nintzen gau osoan ametsetan: bi milioi t'erdi erori ziren ONCE-koen kupoiean. Aste betean gastatu nitun esango dizuet zertan, barku polit bat erosi nuen Donostiko rebajatan.

Hogeitaz urteko tripulanteak erosi nituen merke, eta kapitain ile-ori bat diru pixka baten truke. Loteriako bi milioi hauek nik jasoko banituzke, amets eder hau egi bihurtzen hortan gastatuko nuke.

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

ERREZETA



Jon Ander Arozena
Aldapa jatetxea
Ordizia

PIPER GORRI ETA BAKAILAO ENTSALADA EPELA

Osagaiak: Bakailao solomotoxo bat, patata bat, 2 piper gorri, oliba-olio birjina eta perrexila.

Patata lamina mehetan moztu eta labean sartu 10 minutuz, olio eta gatz piska batekin. 2 piper gorriak labean erre 6 minutuz eta bakailaoa 5 minutuz egosi. Piperrak erre ondoren azala eta haziak kendu eta tiratan moztu.

Plater batean 5 - 6 patata laminak jarri. Gainean piperrak menditxo bat osatuz. Ondoren bakailaoa xerratxoetan desegin eta piperren gainean jartzen da. Oliba-olioaz busti eta apaintzeko perrexil xehe-tua plater guztian jartzen da.



Arantzazu Agirre
Goierri Akademia

Udan hizkuntzak ikastea, bai bertan bai jatorrizko herrialdeetan, udako ekintza 'klasi-ko'etako bat bihurtu da. Beraien arrakastaren arrazoieta-ko bat giro atsegin batean aisialdia eta lanaldia gune eta momentu berdinean bateratzea lortzen dutelako da.

Jatorrizko herrialdeetan egiten diren ikastaroek hainbat abantaila dituzte: sarritan gramatika liburuetatik kanpo geratzen den hizkuntza erreal eta eguneroko horretan murgiltzea; hizkuntzaren erabilpenari, ahal den neurrian behintzat, beldurra galtzea eta ondorioz norberaren auto-estima garatu hizkuntza arrotz hortan bizitzea lortu duelako. Gainera, hizkuntzaren sakontzearekin batera adiskide eta toki berriak ezagutzeko aukera ematen dute.

Abantaila hauen bitartez arrakasta lortzeko, hainbat

AHOLKUA

Udan hizkuntzak ikastea

gauza etxetik prestatuta eramatea erabat komenigarria da, leku batera bidaiatu aurretik egiten dugun bezala, ahal den informazio gehiena pila-tuaz. Lehendabiziko pausoa, eta inongo garrantzirik ematen ez zaiona, norberaren ama hizkuntzaren gramatikari errepaso on bat ematea da, funtsezko erreferentzi puntu bihurtuz. Hau eginez hizkuntza berri horretan dauden pareko eta antzeko gramatika egiturak bilatzen, aurkitzen eta ezagutzen lagunduko di-zu, ikasketa erreztuz eta den-bora laburtuz. Honela hizkuntz berri horren sakontzea garaizago hasiko duzu.

Beste pauso komenigarri bat, atzerriko hizkuntzaren ezagupen eta erabilpen maila bat eramatea da. Bestela erabat galduta aurkitzeko arris-kua dago. Gutxiengo maila honek honako hauek bete beharko lituzke: oinarriko hiztegia, aditz denbora nagusien formen ezagupena eta hainbat egoerei aurre egiteko esaldi simple eta motz batzuk ikas-tea. Eragotzi behar da bai bel-durraren menpe geratzea, bai erabat galdurik sentitzea oso gutxi edo ia ezer ulertzen ez

den egoeretan aurkitzean, eta ondorioz indarra erabili behar-rean hizkuntza erabiltzeko egoerak bilatzen, egoera hauek nola ez gauzatu sus-matzen galtzen dira, egonal-dia ia erabat alferrik galduz.

Etxean egin dezakezun beste gauza bat hizkuntza maila sendotzea da. Bideoan filmak ikusiz edo aldizkariak eta liburuak irakurritik. Hasie-ran dagokizun mailari adostu-tako liburuak irakurriko ditu-zu, baina ahal duzun azkarren hasi zaitez liburu adostatu hioen jatorrizko bertsioak ira-kurtzen. Hasieran kosta egi-ten da eta hiztegia ezin da al-botik kendu baina merezi du eta hiztegia eta ulermena ge-roz eta zabalagoa izango du-zu.

Jakin ezazu hizkuntza bat ikastea inoiz bukatuko ez den abenturaz jositako bidai luze eta zirrargarri baten murgil-tzea bezala dela. Beraz, uda honetan bidaiatzeari ekin edo jarraitu ezazu beldurrik gabe eta bidaietan bezala ez zaitez konformatu besteek egindako argazkiak ikustearekin. Zu zeu joan zaitez bertara, ez za-ra damutuko.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 88 57 50 - 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN



☎ 88 55 00 **ORDIZIA**

TXANDAKA

Lehenengo jaunartzea

Ez naiz kristau sinestuna. Oraindik behintzat ez dut beharrik sentitu. Ez daukat salbaziorako elizak eskaintzen dituen aukera eta irtenbideen beharrik, gaur gaurkoz. Aurrera zer izango naizen?, inor baino kristau eta fededunago bihurtuko naizen?... Nork daki?!

Onartzen dut eta errespetatzen ditut, erabat gainera, kristautasunaren aukera hori egin dutenak eta, xuxen-xuxen edo maila apalagoan, dotriña horrek eskatzen diena betetzen eta eskaintzen diena jasotzen dutenak.

Maiatzean ohi denez, iritsi da kristautasunaren barruan 8-9 urteko haurrek "ospatzen" duten sakramentuaren garaia, jaunartzeen bolada. Jaunartzeetan egiten diren gehiegikeriak botatzen ez naiz hasiko orain. Soilik, esan, maiatzaren 14ko Euskaldunon Egunkarian Iruñeko Artzapezpikua den On Fernando Sebastian Jaunak botatakoekin erabat ados nagoela; bazela, elizatik bertatik, elizgizon batek horrelakoak botatzeko garaia. Alde batetik gastua, luxua, bazkari handiak eta bideoak kritikatzeko ditut eta, bestetik, egun horren ondoren jaunartzearen esanahiari buruzko guztiak ahaztu egiten direla dio Artzapezpikuak.

Kristautasunaren sakramentu hori pozik eta benetako erlijiotasunez hartzen badute haurrek, gurasoen nahia birtarteko delarik izango da. Bestela ez du zentzurik. Eta hala bada, gurasoek pozik lagundu beharko liokete haurrari, bai jaunartze egunean, bai ondoren, kristau bidean zuzen jarraitzen, obligazio hutsez ezer egin beharrik gabe.

Noski, badakit iritzi honekin ez direla ados egongo, alde batetik jatetxe, arropa-denda eta opari-dendetakoak, besteak beste eta, bestetik, ezta "besteak bezalakoa" izateagatik soilik, muntaia horretan sartzen diren gurasoak ere.

Kontsumismoak eta gogoz kontra bada ere, artaldeko ardi izateak, besteak bezalakoa izateak, indar gehiegi dute gure gizartean. Amen.

Jorepa Madariaga



Azterketak beharrezkoak al dira?



Amaia Sadornil

15 urte, ikaslea ordiziarra

Bai, zenbat dakizun jakiteko beharrezkoak dira azterketak. Zaila da beste era batera kontrolatzea.

Ander Cortes

16 urte, ikaslea ordiziarra

Zein nota jarri jakiteko balio du azterketak baina egun bateko azterketan ezin da bakoitzaren maila neurtu. Eguneroko lana jarraitu behar da.



Josu Perez

15 urte, ikaslea ordiziarra

Notak jartzeko beharrezkoak dira azterketak, baina eguneroko lana ere hartu behar da kontuan.

TOYOTA
GOIERRI AUTOAK



TOYOTA CELICA

3.175.000 pezetatik

3 URTE
GARANTIA

24 ORDU
ASISTENTZIA

ORDIZIA

88 20 05 - 88 10 73



IRAKASLE ESKOLA
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

IRAKASLE ESKOLAK zera jakinarazten du: 1997-98 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela honako karrera hauetan:

● **MAGISTERITZA**

Espezialitateak:

- ... HAUR HEZKUNTZA
- ... HEZKUNTZA BEREZIA
- ... ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

● **HUMANITATEAK-ENPRESA Lizentziatura.**

Lizentziatura honek profesional gaituak sortu nahi ditu, pertsona eta erakundeek kudeaketa, zuzendaritza eta garapenean sortzen diren eskaera eta beharrei erantzuteko prestatuak.

INFORMAZIOA:

IRAKASLE ESKOLA

TEL: 943 / 71 41 57

20540 ESKORIALT-

ZINEA



BEASAIN:

'Al limite del riesgo'. Ostirala 6: 22:15; igandea 8: 17:00 - 19:30 - 22:15; astelehena 9: 19:30.

'En brazos de la mujer madura'. Larunbata 7: 19:30 - 22:15.

ORDIZIA:

'Donnie Brasco'. Ostirala 6: 22:15; larunbata 7: 19:30 - 22:15; igandea 8: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 9: 19:30.

'El retorno del Yedí'. Igandea 8: 16:45.

MUSIKA

BEASAIN:

Ekainak 19, ikasturte-amaierako kontzertu berezia, Usurbe Antzokian, 19:30etan.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Ekainak 7, kafe-antzerkia: 'Dos chicas de azúcar' lana 'De papel teatro' taldearen eskutik, Barrenan, 22:30etan.

Ekainak 14, kafe-antzerkia: 'La Dinamica' produkzioak 'In/Solita' lana aurkeztuko du, Barrenan, 22:30etan.

HITZALDIAK

BEASAIN:

Ekainak 12, 'Kontsumitzaileen eskubideak eta betebeharrak' Ane Miren Uranga eta Arantxa Lorenzoren eskutik, Batzar-aretoa, 15:00etan. Udal Euskaltegiak antolatutik.

IKUSENTZUNEZKOAK

LAZKAO:

Ekainak 11, 'Islandia' ikusentzunezkoa, Jabier Fernandezek eskutik, Maizpide euskaltegia, 21:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Ekainaren 6ra bitartean, Julio Albarranen argazki erakusketa, Aterpe tabernan.

Ekainaren 6tik 15ra bitartean, Pedro Gaztañaga pintorearen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoa.

Ekainaren 6tik 8ra bitartean, erakusketa Beasaingo Ikastolan (Urbialden): bonsai, makilak, argazki zaharrak, jantzi eta altzari zaharrak, irrati gela, ordenagailu gela eta bideo gela.

Ekainaren 7tik 27ra bitartean, Vera Aldaberen erakusketa, Aterpe tabernan.

ORDIZIA:

Ekainaren 6ra bitartean, Luis Cisnerosen 'Vis'-en erakusketa, Barrena jau-regian.

Ekainaren 13tik 27ra bitartean, Iñaki Azanzaren argazki erakusketa, Barrenan.

Ekainaren 16tik 20ra bitartean, Urdaneta ikastetxe-ko eskularen erakusketa, Barrenan.

Ekainaren 16tik 22ra bitartean, 'AHTrik ez' erakusketa, Barrenan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Ekainak 8, Lekunberri - Betelura.

Ekainak 15, Salbada mendizerrara.

Ordiziako mendizaleak:

Ekainak 7, Itziar - Mardariaga - Xamiño - Mandubia - Ordizia.

Ekainak 15, Larraitx - San Migel.

PSIKOLOGI KLINIKOA




Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

**Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak**

**AURRE ZITA
☎ 88 72 21**

**Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN**

Autowag, s.a.



Gasolina eta Diesela

☎ 88 82 54 - 88 82 62 - 888266
N-1 errepidea, 419 Km BEASAIN



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Opariak

☎ 67 39 07
Euskal Herria, 11
IBARRA

☎ 88 40 56
Andra Mari, 5
BEASAIN

Yoga eta osasuna

Beste urteetan bezala, aurtan ere, Harold Sequiera, Bombayko Yoga Institutoko Irakasleak zuzenduriko bi hitzaldi izango dira Goierri. Jorratuko duen gaia: 'Yoga eta osasuna' izango da.

Ekainak 10, Lazkao-ko Udaletxeko Areto Nagusian, arratsaldeko 7.30etan.

Ekainak 11, Ordizia-ko Barrena jauregiko Areto Nagusian, arratsaldeko 8.00etan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola (Plaza Nagusia-Ordizia).

7-8: Azpilikueta (Nagusia, 18 - Beasain).

14-15: Atorrasagasti (Gipuzkoa, 15- Ordizia).

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Lagun bat behar da Ordizian pisua osatzeko, uztailetik hasita. Zentruan dago, eguteraan, jantzia, egoera eta modu onekoa. 16 18 35. Jon.

☐ Hurrengo kurtsoan Iruñean pisua osatzeko 3 ikasle behar dira. 65 32 69. Maialen.

☐ Etxebizitza unifamiliarra alokatzen da Zaldibian. 88 51 02. Prontxio.

Salerosketak:

☐ Karrerako bizikleta salgai. Erabili gabea, berri-berria. Marka: Campagnolo Mirage. Kuadroa: Albero. 882714. Dei eguerdian.

☐ Pastor aleman pedigri-dunak salgai: 4 ar eta eme 1. Precio onean. 18 02 64. Xabier.

☐ Citroen AX autoa salgai, SS - Z matrikuladuna. 5 atekoa. 72 35 04.

☐ Segadera salgai, Reblu diesela. Berria. 80 13 58. Iluntzeko 7etatik 9etara deitu.

☐ Tresillo berri-berria salgai. 88 96 87. Deitu iluntzeko 8.00etatik 10.00etara.

☐ Mendiko bizikleta salgai. Berria. 88 47 12.

☐ Taberna bat traspasatzen da Lodosan. Lurdes. 948 - 69 36 75.

☐ Mahaia, 6 eserleku, 2 altzari eta lanpara salgai. 88 26 31. Arrasalde deitu, 2.30etatik 7.30etara.

Lana:

☐ Edozertan lan egingo nuke, arratsalde edo aste-bukaeretan. 3 urtez lanean aritua. Amaia. 80 65 52.

Bestelakoak

☐ Zure ezkontza eguna ahaztezina izatea nahi baduzu, deitu Loinatz Kama-ara abesbatzari. 88 99 55.

Saldu, erosi, eskaini... nahi baduzu, hau da zure txokoa.

Iragar zaitez GOIERRITARRAN

124 p.k. ORDIZIA

☎ 88 96 12 - Faxe: 88 27 19

Ignacio Garmendia Goya

- ✓ Txatarra, altzairu txirbil eta metalen erosketa
- ✓ Neurri ezberdinetako edukiontzien zerbitzua
- ✓ Merkatuko salneurriak egokienak

Alderdieder, 1

☎ 80 64 29 - Faxe: 80 61 14

LEGORRETA

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Unibertsitarioak
- ✓ Oposaketak
- ✓ Kurtsoak

Maila eta arlo guztiak
Zentru homologatua

☎ 16 01 20 Joan Iturrialde, 5 BEASAIN



The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5

☎ 16 20 16

ORDIZIA

**UDAN ERE HEMEN IZANGO GARA ZURI LAGUNTZEKO
ATZERRIRA JOAN NAHI BADUZU, BERRIZ, AHOLKATUKO ZAITUGU**



Joxe Arozena
Beasaingo HBko
zinegotzia

Ez dira arrazoi gutxi, Etxegarateren inguruan kezka sakonak edukitze-ko batik bat gipuzkoar eta nafarrok ditugunak. Kezkak, denbora aurrera doan heinean gauzak lehengo lekuan daudelako, eta epe laburrean mugitzeko itxurarik ez dutelako. Kezkak baita ere, sortu diren borrokarako gune txiki horietan elementu distorsionatzaile eta desaktibatzaile bat baino gehiago sartu delako (Beasain, Ordizia, Lazkao eta Tolosako alkateen jarrera ikusi), borrokaren iparra galdu arazi eta egon litekeen grina baretzeko.

Gaiaren inguruan historia eginez esan, Etxegaratek Euskal nazioaren estrukturaizazioan daukan traba funtzioa ikusteko ez dela Goierri edo Sakanan bizi beharrik. Nahikoa da Iruñatik Bilbora edo Arabatik Donostia-
ra joan beharra izatea. Berez dagoen bezala traba oso nabarmena suposatzen baldin badu, zer esanik ez da, oraindik ere airean dabilzan peajea eta gainerako mamu horiek burutzen badira.

Etxegarateren bikoizketaren beharra, ez da Ezker Abertzalean ikusten den lehentasun bat bakarrik, herritarren artean oso zabaldua dabilen ideia bat ere bai. Horretaz aparte, EAEko 87ko Errepide Planean, orain hain lasai ukatzen duten horiek, 92rako bikoizketa hau burutua egon beharko zela agintzen zuten. Ondoren, lan hauen burutzea, 93-98ko seiurtekoan burutu beharko zela aipatzen zuten.

Hainbat urteren ondoren, argi ikusten da, batik bat Gipuzkoako Foru Aldundiak, ez duela izan, ez daukala, eta aurrerantzean ere nekez edukiko duela Etxegarate behar den moduan desdoblatzeko borondaterik, herritarren presioak beste erremediorik gabe horretara behartzen ez badu. Maltzaga-Urbina (orain Eibar-Gasteiz) ditu jarrita lehentasun politikoak Aldundiak, eta honen inguruan darabil errepide politika guztia. Paris-Gasteiz-Madril-Lisboa deritzo-

Etxegarate: Ideiak argi eta aurrera

ten ardatzaren aldeko apustua eginga du PNVk, eta beste guztiak, bigarren mailako beharrak izatera pasatzen dira.

Guztiok dakiguna da, beste maila batetako lehentasunak edukitzea (batik bat Maltzaga-Urbina delakoaren inguruko interes sozioekonomikoak) dela aurtengorako dirurik ezaren arrazoirik nagusia, eta benetako Etxegarateren aldeko apustua egiten ez den bitartean, aitzakiak besterik ez ditugula izanen, beraien gezurra zuritzeko. Aurten bertan mendatean lanean hasteko beharraz hainbat ekimen, instituzio eta gizabanakok eginiko aldarrikapenen aurrean, kasurik ez egiteaz gain, prepotentziazko jarreraren bidez erantzun du, Sudupe, Irizar eta konpainiak. Gainera, Gipuzkoa eta Nafarroaren mendeetako harreman naturala oraindik eta gehiago oztopatuko lukeen peajearen aldeko jarrera adierazten dute, horrek izango litzukeen ondorio sozio-politiko guztiakin.

Lehentasun politikoak garbi edukirik eta inguruko herri eta eskualdeen interesak ikusiz, honako hiru zutabetan oinarritu behar dira markatu beharreko borroka ildoak:

a.- Etxegarateren desdoblamiento ahalik eta azkarren burutu beharko da aurtendik horretarako diru kopuru bat izendatuz. Nafar eta gipuzkoarren arteko (baita gainerako euskaldunentzat ere) harreman sozial, ekonomiko eta politikorako traba geografikoan bihurtu da mendate hau. Hainbesteko garrantzia izanik, lehentasun politikoa izan behar du obra honek.

b.- Borondate politikorik ezaren erakusgarri nagusia, obra ez burutzeko aitzakitza, finantziatzeko dauden arazoak aldarrikatzean datza. Maltzaga-Urbina proiektuarentzat, 6.000

miloitako diru poltsa bat dago geldia, aurtengorako Etxegaraten 50 miloi aurrikusten dituzten bitartean. Jakina, finantziario pribatua eta ondoriozko peajearen beharrik gabe burutu behar dela.

d.- Azkenik, Etxegarateren desdoblamiento obra eskatzen da, baina edozein txikizio ekologikoren preziorik ez da onartuko. Daukagun informazio apurrak, maila zabal batean lehengo errepidean oinarritzen dela erakusten badigu ere, oraindik ere proiektua bere osotasunean zehaztu gabe dagoenez, ahalik eta kalte ekologiko txikiena egingo dela bermatu beharko dugu.

Etxegarateren bikoizketaren 1 eta 2 faseek bat egin eta aurtendik bertatik lanak hasi behar dute. Borroka guzti hau garatzeko nahitaezkoa da herrietan dauden indar guztiak aktibatzea. Udaletatik hasi, merkataritza taldeak, kultur taldeak... herrietako mugimendu errealek hain zuzen ere. Orainartean, udaletatik eraman da pisurik handiena, baina ezin dugu soilik mugimendu instituzionalak izan daitezen utzi. Lan handia egin behar dugu, eskabide hauen aurrean ahalik eta indar metaketarik handiena lortzeko, eta benetako presio soziala egingo duen mugimendua izan dadin. Hala ere orainartean eman diren pauso horien barruan badira elementu desaktibatzaile zenbait, gisako egoeretatik xurgatuz bizi diren taldeak, alegia. Hauen eraginaren aurrean oso kontuz ibili behar dugu. Herrien garapenaren alde egiten ari direla esanez, interes pribatu eta partidisten atzetik egin ohi dituzte beraien ekimenak, eta edozein preziotan edozer gauza saltzeko prest egon ohi dira benetako herri borroka legitimo baten lanerako gaitasuna eta borondatea aprobetxatuz. Hau errealitatea da, eta prozesu guztietan, bidetik alboratu behar dira. Bestela, konturatzerako beraiak markatzen dute bidea. Ideiak argi ditugu eta irabaztea gure esku dago.

Goierriko EAJko alkateek utzi egin dute Etxegarateko Bikoizketaren Aldeko Plataforma

Ekainaren 2an Goieki-
ren egoitzan Etxega-
rateko Bikoizketaren
Aldeko Plataformak bilera
egin zuen. Berria Goierriko
EAJko alkateek (Beasain,
Lazkao, Legorreta, Ordizia
eta Ormaiztegi) sortu zuten.
Plataforma utzi egin dute,
"Batzar Nagusietan hartu-
tako erabakia nahikoa
dela" uste baitute. Goierri-
ko EAJren erabakia izan de-
la azpimarratu zuten.

Antton Irizar Idiazabalgo
alkateak prentsauraren adie-
razi zuenez, "alkateek Pla-
taforma utzi egin dute, bai-
na orain euren udalek zein
jarrera hartuko duten ikusi
beharko dugu". Ordiziako
kasuan, esaterako, Juanbi
Erauskin alkateak aurkako
jarrera azaldu badu ere,
Udala plataforman jarrai-
tzearen alde azaldu da eta
bere ordezkaria bidaliko du.
"Alkateok ez gaude plata-
forman alderdi bat ordezka-
tuz, herria, Udala, ordezka-
tuz baizik, herriak nahi due-
lako gaude hemen", esan
zuen Irizarrek.



Gauzak honela, bileraren
ondoren plataformak, "har-
tutako erabakia edukiz be-
tetzeko" eskatu dio Gipuz-
koako Diputazioari.

Honela dio idatzia:

- 1.- Batzar Nagusien eraba-
kia lehen urratsa bezala
ontzat hartzen dugu, bai-
na ez dugu uste nahikoa
denik eta akordioa lan-
tzen joan beharko dugu.
- 2.- 1998ko aurrekontuak
egunotan prestatzen ha-
siko direla kontutan har-
tuta, Gipuzkoako alderdi
politiko guztiekin harre-

manetan jartzea erabaki
dugu, Batzar Nagusien
erabakia zehazten eta
lantzen joateko hurrengo
puntuen arabera: 1998,
1999 eta hurrengo urtee-
tarako aurrekontuetan
Etxegarate bikoizteko
partidak zehaztu; 1996
eta 1997 urteetarako zu-
zenduta zeuden 6.050
milioietatik Etxegarate-
ko bikoizketari dagokion
kopuru eta portzentaia-
ren zehaztapena; inguru-
giroaren eraginaren azter-
keta berehala martxan
jartzea; Etxegarateko bi-
koizketaren III. faseko

obrak onartu, enkantean
atera eta esleitzea; III.
faseko obren hasera data
finkatzea; eta ordainsa-
ririk ez dela izango ziur-
tatzea.

- 3.- Gizarteari Batzar Nagu-
siek hartutako erabakiari
buruzko gure iritzia hele-
razi, landu eta osatu be-
har den erabakia dela
erakutsiz.
- 4.- Nafarroako Gobernu-
aren Errepideetako ardu-
radunarekin bildu Etxe-
garateko nafar tramo-
aren bikoizketa eskatzeko.
- 5.- Plataformaren Jarrai-
pen-batzordea maiztasun
jakin batekin bil dadin
Batzar Nagusien azken
erabakia lantzen joateko.

Idatzia Goierriko gaine-
rako udalek sinatu dute. Iri-
zarrek eta Altsasuko alkate-
ak adierazi zuten, "herria
gurekin dago. Sindikatu eta
kultur, kirol eta gainerako
elkarteak beraien atxiki-
mendua azaldu dute".

PUB
ASTI
Zaldizurreta kalea
88 45 06
BEASAIN

OSTEOPATIA
Jose Gisasola Dr. Koleg. Zkia. 3998
**BIZKARREKO MINAREN
ESKUZO TRATAMENDUA**
● LUNBAGO, ZIATKA, HERNIA DISKAL
● ZERBIKALGIA, ZEFALIA, MIGRAINIA, ARTROSIS.
R.P.S. 213/97
Eskatu ordura: 8 (929) 45 20 53 - 88 92 22
Oriamendi, 3 - 2. ezk. - BEASAIN

Autobusa + Kanpina

- **ESKANDINAVIAR FIORDOAK**
Abuztuaren 3tik 22ra . . . 59.500 pezetatik
- **IRLANDA**
Abuztuaren 3tik 24ra . . . 47.500 pezetatik
- **PRAGA-ESLOVAKIA-HUNGARIA**
Uztailaren 6tik 27ra
Abuztuaren 3tik 24ra . . . 47.500 pezetatik
- **ESLOVENIA-KROAZIA**
Abuztuaren 3tik 23ra . . . 53.000 pezetatik
- **ESKOZIA**
Abuztuaren 3tik 17ra . . . 43.500 pezetatik
- **ITALIA**
Uztaila-Abuztua-Iraila . . . 30.000 pezetatik
- **ALPEAK**
Abuztuaren 3tik 17ra . . . 26.000 pezetatik
- **HERBEHEREAK (Paises Bajos)**
Uztaila-Abuztua-Iraila . . . 32.500 pezetatik

Urola Bidaiak

GRUPO STAR VIATAS
K. Nagusia, 36
16 15 46 - 47
BEASAIN

- **DANIMARKA BIZIKLETAZ**
(autobusa + kanpina + bizikleta)
Abuztuaren 3tik 24ra . . . 54.500 pezetatik.
- **DANUBIO BIZIKLETAZ**
(autobusa + kanpina + bizikleta)
Abuztuaren 3tik 24ra . . . 54.500 pezetatik.
- **PARIS - AMSTERDAM - BRUSSELA**
(autobusa + hotela)
Abuztuaren 4tik 11ra . . . 45.900 pezeta.
- **ISLANDIA, 15 egun**
(Hegazkina + kotxea + hotela)
Irteerak egunero . . . 289.500 pzetatik.
(4 pertsonako taldeak gutxienez)



Ardanza Goierriin

Jose Antonio Ardanza lehendakaria maiatzaren 21ean Goierriin izan zen bisitari. Ordiziako azoka, Irizar kooperatiba, Zerain eta Zumalakarregi museoan izan zen besteak beste. Goierriko alkateekin ere izan zen, Goiekin. Jabier Retegi, Mari Karmen Garmendia eta Roman Sudupe izan zituen bisitari lagunak Ardanzak.

Hurrengo egunetan Ardanza lehendakariak, Goierriira eginiko bisita erabili zuen adibidetzat, hurrengo lehendakariak euskalduna izan behar zuela argudiatzeko. Goierriko alkateekin eta Goiekiko arduradunekin eginiko bileretan euskaraz egin zela, eta bera gure hizkuntzaz jarduteko gai izan ez balitz, bilerak gaztelaniaz egin beharko lirakeela nabarmendu zuen.

CAF-Filipinak

Espainian Filipinako enbaxadorea den Isabel Caro de Wilson, eta Jauraritzako Merkataria eta Turismo kontseilaria den Rosa Diez, CAFen izan ziren. Filipina-

ko bi proiektutan parte hartzen ari da CAF.

Joxe Goikoetxea

Senideak, preso politikoen sendiartekoen elkarteak, Joxe Goikoetxea ataundar

presoaren egoera salatu du. Iazko abuztuan Dupuytrenen sindromea diagnostikatu zioten. Gaixotasun horrek eskuen zurruntzea dakar. Tratamendu kirurgikoa azkarra ez bada, hatz bat ebakitzeko arriskua izango du. Martutenera ekar dezatela eskatu dute bai bere herriko udalak, bai presoak berak. Castellonen dago preso.

Berzikli saria

Sasieta Mankomunitateak antolatzen duen eskola arteko lehiaketan sariak banatu ziren maiatzaren 30ean, Be-

asainen. Kartel lehiaketa, Ordiziako Urdaneta Oian-guren ikastetxeak irabazi du. Rafting egitera bidai bat eta oroigarritzko plaka bat jaso dute saritzat. Minimizazioaren hamar legeak atalean, Urretxu-Zumarragako Ikastola izan da garaile. Hauek ere ordiziarrek jaso duten sari bera jaso dute. Eta Berzikli saria, berriz, Ormaiztegiko San Andres Herri Eskolarentzat izan da. National Geographics-en bilduma jaso dute. Sari-banaketan, Sasieta lehenakaria eta Kutxako ordezkariak izan ziren.



Pryca Goierriin

Maiatzaren 28an ireki zituen ateak Pryca zentru komertzialak Olaberrian. 3.500 milioi pezetako inbertsioa egin da eta 260 lanpostu sortu dira. Eraikuntzak 9.000 metro karratu ditu, 40 kaja eta 700 ibilgailurentzako aparkalekua.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 88 87 02
BEASAIN

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN



AEK txiste lehiaketa

Cesar De Benito eta Maider Zabaleta beasaindarrek eta Rosa Sebastian ordiziarrek irabazi dute AEK-k antolatutako VI. Txiste lehiaketa. 300 txiste inguru aurkeztu dira. Irabazleen aukeraketa AEK-ko ikasleek egin dute. Jasoko duten saria hauxe da: Ordiziako Haizpen, Gaintzako Kale-Txikin eta Zegamako Ostaturun bi lagunentzako afariak.

Jon Urrujolegi

Zegaman jaio, Seguran hazi eta Donostian bizi den idazleak Arragoa liburua kalera-
tu berria du Txalaparta argitaletxearekin.

Eskolarteko bertsolari txapelketa

Goierritarrek jaso dute sariarik Gipuzkoako bertsolari txapelketan. Txikietan Goierriko taldeak bigarren egin zuen. 15-18 urte bitartekoan mailan, bapatean, Ekaitz Goikoetxea beasain-

darrak ere bigarren egin zuen. Bertsopaperetan, berriaz, Alaitz Sarasola ordiziarrek irabazi zuen, handien mailan.

Irati Goikoetxea

Bi sari lortu ditu beasaindarrak, bertso-paperetan. Bata, Durangon Berbaro Kultur elkarteak antolatuta eta 14 urte bitarteko mailan Igo saria. Bestea, Azkoitin, Xabier Munibe VI. bertso-paper lehiaketan Igo saria, 'Ipuinetik-ipuina' lanarekin.

Jazkilar: egoera desfaboragarrienean daudenentzat lan aukera

Jazkilar kooperatiba 1991. urtean Karitasek sortua da. Gipuzkoa eta Bizkaian 13 kooperatiba daude, eta 14.a, Goierri irekiko du. Oraindik zurrak ez bada ere, Itsasondan egingo dituzten industria pabiloi batean kokatuko da.

Jantzigintza industrialaren egiten dute, hau da, beste enpresa batzuentzat josten dute. Egoera desfaboragarrienean dauden lagunei zuzendua dago. Ikasketak maila baxua edo ikasketarik ez dutenei, edota, langabezian dauden familiei... 40 lagun aukeratuko dituzte. Udaletako Gizarte Laguntzaileek eta Goiekik lagunduko dute aukeraketan. 9 hilabeteko ikastaroa hasiko dute astelehenean. Azke-

nik, 15 egokienek, kooperatiba sortuko dute. "Aukeratzeko dutenek oportunitate egin beharko dute makinaria eta pabiloia erosteko. Hori bai, aukeratuetakoren batek dirurik ez badu, Karitasek berak utziko dio", argitu digu Iker Galparosoro, Goiekiko Inkubategiko arduradunak.

Udalek interes handia azaldu omen dute, beraiek ere diru oportunitate egingo dute.

Datorren urtean bigarren kooperatiba sortzeko aukera ere badago. Sortuta dauden kooperatibek martxan jarraitzen dute, eta dagoeneko 150 bat langile ari dira bertan lanean.

Taldeakako erlojuaren aukako txapelketa

Ligorretako Bilkoin K.K.Eak, Udalaren eta Kulturaren babesean, taldeakako erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapelketa antolatu du Legorretan, 2. urteko ka-

deteentzat. Ekainaren 7an izango da, arratsaldeko 4etan hasita. 30 kilometro eta erdiko ibilbidea da, eta taldeak bi minututik bi minutura aterako dira.

ALTZAGAN, BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN ERAIKUNTZA (ORDIZIATIK 5 MINUTUTARA)



- ✗ Etxebizitza adosatua
- ✗ 90 m² etxebizitza
- ✗ 13 m² trasteroa
- ✗ 30 m² garaiea
- ✗ Lorategi/baratza
- ✗ 14.000.000 pzt. inguru

Argibideak:

ALTZAGAKO UDALA

☎ 88 37 37 - 88 11 70

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxe: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

ZERAIN ETA GABIRIAN ESKOLA TXIKIAK BIZIRIK DIRA:

"Eskola txikiak beharrezkoak dira herri txikiei bizirik eusteko"

Nekazal giroko herrietan edo auzoetan kokatzen dira eskola txikiak. Gela berean ikasmaita eta adin ezberdinetako haurrak egoten dira. Publikoak eta D eredukoak dira. Ezaugarri hauek betetzen dituzten bi eskola txiki ditugu Goierriin: Gabirian eta Zerainen. Eskola txikien filosofia eta nondik norakoen berri jakiteko Ane Miren Aizpuruarekin (Gabiriako andereñoa) eta Kontxi Errastirekin (Zeraingo) izan gara.

Gipuzkoan 26 eskola txiki daude, ia 900 haur eta 70en bat irakasle. Eskola Txiki gehienak Tolosaldean eta Zarautzaldean daude.

● Zeraingo Herri Eskola

Zeraingo Herri Eskola, duela 14 urte ireki zen berriro ere, urte batzuz itxirik egon baitzen. Aurtengo ikasturtean 13 ikasle dabilta, 3 eta 7 urte bitartekoak. Datorren urtean kopuru hori asko jaitsiko da. 8 urterekin, Segurako Lardizabal Herri Eskolara joaten dira.

Kontxik gogoratzen duenez, herrian berriz ere eskola irekitzeko interesa, Udalak azaldu zuen. Ondoren gurasoak elkartu eta erabaki zuten 7 urterarte ematea. "Era honetan, 8 urterekin herri nortasuna hartuta joaten dira beste herrietara. Beste herri batera joaten



Zeraingo haurrak.

direnean, haur hori beti beste herrikoa izango da, baina badakite zeraindarrak direla eta pozik daude. Baina 3 urterekin joanez gero, ez dakite zer den Zerain eta zer Segura", argitu du Kontxik.

Bitxikeria bat gogoratu du Zeraingo andereñoak. "Eskola sortu zenean, aurretik Segurara joaten ziren haurrak, Zerainen gelditu ziren. Ikasle baten informesak zioen, segurtasun falta zuela... Baina Zeraindik bera bakarrik joaten zen Segurara. Hemen, izugarritzko ziurtasuna hartu zuen eta ez zuen horrelako arazorik. Etxetik gertu egoteak ere, haurrari zerbait gertatuz gero, etxera joateko aukera ematen dio. Baina hiru urteko haur bat goizean etxetik atera eta arratsaldean itzultzen denari, pentsa... Haurra bere ingurunean seguruago sentitzen da".

Herriko eskolan gertu eta herria sentitzen dute. "Herri kontzientzia hartzen dute. Oso herrikoia egiten dira". Batez ere Andoni

Alustiza zinegotziak bultzatu omen zuen eskola berriro irekitzea. "Berak ikusten zuen lehen herrian eskolan ibili zirenek bazutela herri kontzientzia, baina txikitik kanpora joan zirenek, ez. Lagunak kanpoan egiten dituzte, ez dute herri kontzientziarik. Horrek dakar herriak batere ez axola izatea. Alde horretatik garrantzitsua da eskola herrian edukitzea. Behar-beharrezkoa da herri txikiak mantentzeko herrian eskola izatea".

Eskola unitarioa berez oso aberatsa da Kontxik azpimarratu digunez. Batetik, haurren jarraipena oso gertutik egitea ahalbideratzen du. Bestetik, "haurrak imitatuz ikasten du, handiagoko kopia nahian. Handiagok txikiagoak errespetatzen ikasten dute. Txikiek handiengandik ikasten dute, hartueman ezberdina da...". Baina nola moldatzen ote dira andereñoak, adin ezberdinetako ikasleei erakusterako garaian? "Gauza asko berdin egiten

dira. Gauza batzuk elkarrekin egiten dira, baina bakoitzak bere mailan. Matematika kontzeptuak adibidez ez. Ipuin bat lantzera koan, adibidez, denak batera lantzen dugu, baina bakoitzak bere mailan. Ipuin berdina izan arren, bakoitzak bere erara idatziko du, ahal duen mailan. Joku asko egiten ditugu, batez ere matematikan".

Kontxi eskola handietan ibilia zen Zeraina etorri aurretik. "Ez nuen ezagutzen eskola unitarioa hona etorri arte eta iruditu izan zait, ia hasieratik, oso aberatsa dela". Arratsaldeetan laguntzaile bat du. Segurako eskolarekin eta Gipuzkoako eskola txikiekin ere badu harremana.

Zenbait kasutan, irakurketa eta idazketa irakas-kuntzan esaterako, eredugarriak omen dira eskola txikiak. "Txiki-txikitik gauza errealak egiten dira. Errezetak idazten dituzte, albisteak... bakoitzak bere neurrian. Batez ere Tolosaldeko eskola txikiak hasi dira, arlo honetan, beraiek daude aurreratuenak. Eskola txikiak hasi ziren bideari jarraitu diote orain gainerako eskolek ere, irakurketa eta idazketa erakusterakoan".

Era honetako eskola baten arazorik handiena zein den galdetzean, garbia izan da Kontxiren erantzuna: "haurrik ez dagoela. Datorren urtean adibidez, bigarren mailarik ez da egongo. 3 urtekorik ere ez. 7-8 haur bakarrik izango dira".

● Gabiria: Balantzetegi Herri Eskola

Ane Miren Aizpuru da Gabiriako eskolako zuzendaria. Gabiritarra da bera. Eskola betidanik ezagutu izan du Ane Mirenek herrian. "Eskola nazionala zen garai batean. Alde batean neska eta bestean mutilak, eta maisua erdaldun-erdalduna. Autonomia jarri zenetik edo, piskanaka A eredutik D eredura pasatu zen. Herritarrek bultzatu zuten eskolan euskara sartzeko, jendea Ormaiztegiko Ikastolara hasi baitzen joaten".

Gaur egun 2 eta 12 urte bitarteko 23 haur dituzte. Zerain ez bezala, 3 ikasgelatan banatzen dira. "Lehen gela bakarra izaten zen, baina orain 3 ditugu. Aurretan da lehenengo urtea 12 urterarteko haurrak ditugula. Orain arte 5. mailararte izaten ziren baina Lehen Hezkuntza jarri dutenetik, 6. mailararte. Bestela Ormaiztegi urtebeterako bakarri joan behar ziren eta hurrengo urtean berri ere eskolaz aldatu behar ziren, Beasaina joan behar direlako. Espezialistak ere eman dizkigute, bigarren ziklotik aurrera espezialistak behar baitira. Musika, ingelera eta soin heziketako irakasleak dauzkagu". Bi irakasle funko edo fijo daude eta 3 erdika. 3 irakasle hauek bi herritan aritzen dira. "Eskola handi batean izaten duten aukera, herrian bertan dute", dio.



Haur gabiriarak ikastetxeko eskileretan. Irakasleak ere hortxe daude.

Oso garrantzitsua ikusten du gabiritarrek herrian eskola izatea. "Haurrak herrian geldituta herriari bizitza ematen dio. Herria bera maite eta ezagutzen dute. Herria eusteko ere mantendu beharra da eskola, nahiz eta maila txikian izan. Hemendik irtendakoan ere ez daukate arazorik beste eskola handikoekin aritzeko".

Gainera, "eskola txikiak geroz eta gehiago ari dira ezagutzen eta beraien kalitatea onartua dago. Jendea harrituta gelditzen da askotan herri txiki hauetan eskola nola dagoen. Batzutan eskola handira eramate horrekin gauzak hobeto egiten dituztela uste du hainbat gurasok. Probatuz gero, normalean ez dituzte umeak ateratzen".

Irakasle, haur eta guraso

arteko harreman zuzena eskaintzen du eskola txikiak. "Gertutasuna. Konfidantza gehiago. Inguruarekiko gertutasuna. Lan egiteko era haur bakoitzarentzat, gertuagokoa da. Arbela noizbehinka besterik ez dugu erabiltzen. Normalean haur bakoitzarekin lan egiten da. Taldeak ere oso txikiak izaten dira. Talderik handiena 11koa daukagu", esan du Ane Mirenek. Maila ezberdinak izateak ere badu abantaila Ane Mirenen ustez ere: "txikiek handiengandik ikasten dutela. Adinaren saltoa ere masedegarria da askotan, 'hori ni baino txikiago da eta nik baino hobeto egiten du' esaten dute, orduan gehiago saiatzen dira. Elkarrengandik asko ikasten dute, askotan maisuarengandik

Eskola Txikien Eguna Adunan

'Eskola Txikiak Bizirik' lelopean, X. Eskola Txikien Eguna ospatuko da igandean, ekainak 8, Adunan. Egun osoko festa izango da, 10:30etan hasita. Ondoren eskoletako haurren emanaldiak izango dira. 13:00etan Peñagarikano eta Mendiluze bertsolariak, eta ondoren herri bazkaria.

Arratsalde, 16:30etan Euskaraokea izango da eta 19:30etan Trialsina.

baino gehiago. Arduratsua goak ere izaten dira. Beste-laguntzeko ardura hartzen dute".

Beste abantaila bat ere ikusten dio Ane Mirenek herri txikiak eskola txiki. "Eskolako lehenengo eguna ez da traumatikoa izaten, haur guztiak elkar ezagutzen dira eta jolas garaian haur txikiagoak ere eskolan bertan aritzen dira jolasean. Eskolan hasterako ezaguna zaie eskola".

Haur gutxi jaiotzearen arazoa edozein eskolaren arazoa da gabiritarrek esan digunez. "Gabirian ere bai, datorren urtean justuago ibiliko gara. Baina zailtasunik handiena agian, irakasle gutxi gaudela da. Eskola txikiak handiak adina lan izaten ditu eta irakasle gutxiago izaten gara. Paperak direla... gutxiren eskutan lan asko egoten da".

L.A.

Argazkiak nonen editatzen laguntzen

En la edición de esta publicación colabora:



fundazio
fundación

ABIADURA HANDIKO TRENAREN AURKAKO ASANBLADA: "Abiadura Handiko Trenak Goierri txikizio handia egingo du"

Abiadura Handiko Trenea badatorrela eta ekologikoki, kulturalki, sozialki eragingo dituen "txikizioen" berri ematera dator Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanblada (AHTAA). Goierri eragin nabarmena izango du. Goierriren bihotz-bihotzetik pasatzeko proiektua baitago. Jarraian duzue informazio gehiago.

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak emandako informazioaren arabera, Goierritik bi trenbide sare pasatuko lirateke. Bata, 'euskal Y' deitua, Donostia-Bilbo-Gasteiz ibilbidea egiten duena. Bestea, 'H nafarra' deitua, Iruñea Donostia, Bilbo eta Gasteizekin lotuko dituen. Bi ibilbide hauek Ataungo Kaxeta aldean egingo lukete bat.

Jose Antonio Maturanak, Eusko Jaurlaritzako Garraio sailburuak, EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektoriala aurkeztu berria du. Bertan bi alternatiba azaltzen dira, bi tren sare

horiek elkartzeko: bata, Alegia eta Ikaztegietatik Aralar osoa azpitik pasatuz Malloaken ateratzen dena; bestea, Goierritik pasatuko litzatekeena oso osorik.

Ia 50 kilometroko ibilbidea izango du Goierri. "Kilometroak bakarrik ez da arazoa; maila honetako tren batek eskatzen duen babes neurriak izugarriak dira. 100-125 metroko zabalera izango luke bideak. Goierri eta orokorrean Euskal Herrian ez dago hainbeste lur", diote AH-Tren aurkakoek.

'H'ri dagokionez, Gasteiztik Iruñeara doan sareak Ezkio-Itsason hartuko luke

Olaberria aldera. Ezkio-Itsason gainera, aparkalekua egiteko asmoa daukate. "Horrek esan nahi du zabalera bikoitza izan beharko lukeela Ezkio-Itsaso aldean. Inpaktoa oraindik handiagoa izango litzateke". Pryca inguruan 700 metroko bidezubi edo biaduktoa joango litzateke. Ondoren Olaberria azpitik pasatuz, Ataungo San Martin auzoraino, Urkillagako bidegurutze ingururaino. Hortik bidezubi eta tunelen bitartez, Kaxetaraino. Guztira 16,400 kilometro.

Donostiatik Iruñeara joateko, Itsasondon tunela egingo lukete. Arama he-

rriaren azpitik pasa, Zaldibian atera eta Ataungo Kaxeta inguruan ateratzeko. Azken zati hau tunel bidez beteko da. Kaxeta inguru horretan, bi bideak elkartu egiten dira. Ataungo Kaxetan beraz, bat egingo dute bi ibilbideek. Guztira 15,200 kilometro.

'Y' sareari dagokionez, Donostiatik Gasteizko ibilbidea, Legorretatik, Itsasondo, Ordizia, Beasain eta Ezkio-Itsasoraino joango da: 9,600 kilometro.

Beraz, ia 50 kilometro, 17 kilometro inguru tunel eta 1.500 metro bidezubi.

Abiadura Handiko Trenak orduko 250 kilometro egingo ditu, bidaiariak daramatzen kasuan. Merkantziarekin abiadura 120 kilometroraino jaitsiko da. Jaurlaritzak emandako datuen arabera, EAEko trenbide sarea egiteko 600.000 milioi beharko dira. Kilometroa 2.000-2.200 milioi kostako omen da. "Gezur hutsa da. Belgikan esaterako, kilometroko 4.000 milioi gastatu dituzte, eta Katalunian, 4.400 milioi. Guk kalkulatzeko dugu bi bilioi gastatuko direla, Euskal Herriko orografia kontutan izanda".

Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak proiektua gelditzea eska-



GESTORIA BIOK

(BANDRES)
ASEGUROAK

**Errenta aitorpenak
egiten dira**

**Goierri, 12
behea**

ORDIZIA

☎ 88 44 00
88 12 58

IBAI-ONDO

**ZURGINTZA
ALTZARIAK**

P.V.C.ko LEIHOAK



Antzizar Auzoa, z/g
☎ 880543 BEASAIN

tzen du, eta garapen ereduaren aldaketari buruzko eztabaida soziala zabaltzea. "Gure kontua ez da handik edo hemendik, nondik egin behar den AHT. Ez dela behar baizik".

Baina zergatik Abiadura Handiko Trenaren aurka? Azken batean, "Euskal Herriari eta Euskal Herriaren izaerari izugarrizko mina egiten diolako". Baina hona hemen puntuz-puntu AHTren aurkako asanbladaren arrazoiak:

- lurra jaten dio baserriari. Euskal Herrian 400 kilometro dira guztira. Zabalera batzuetan, 100-125 metro. Lurra jango du alde guztietatik eta hemen lur gutxi daukagu.
- destrukzioaren adibide onena da AHT. Hiria bultzatzen du alde guztietatik. Tren hau dago bideratuta, hiri batetik bestera joateko bakarrik. Maturan esaten zuen, Gasteizen bizi, Bilbon lan egin eta Donostian dibertitzeko balioko zuela tren honek.
- beste trenari dena jaten dio. Diru guztia AHTera doa. Zenbait lekutan beste trenaren bideak itxi egingo dira AHTea egiteagatik. Lurralde Plan Sektorialaren dirulaguntzaren % 80a AHTrentzat da.
- guretzat tren hau 'yuppi'-entzat da, herritar arruntak ez du erabiliko. Tren hau 700-1.000 kilometro arteko zatiak egiteko bideratuta dago, hegazkinari konpetentzia egiteko.
- ekonomikoki, hiritik kanpora dauden enpresak



Ataungo Kaxeta aldean bat egingo dute Donostiatik Iruñeara eta Gasteiztik Iruñeara doazen bi bideek, Ataun bi aldetatik zeharkatu ondoren.

- xurgatu egiten ditu. Hirira joan behar izan dute Frantzian zenbait enpresak.
- ekologikoki inpakto handia. 100 kilometro tunel egingo dira. Maturan horregatik dio ezer baino ekologikoagoa dela AHT, lurrazpitik doalako. Baina ekosistemari izugarrizko mina egiten die tunelek. Kilometro guzti horietan tximini efektua egiten du tunelak. Zikinkeria, kutsadura guztia tunelaren barruan geldituko da. Energia lortzeko nuklearra erabiltzen da. Energia asko behar du abiadura batetik bestera pasatzeko. Era berean, tunelak egiteko ateratzen duten lur guztia non sartuko dute? Betetze lanak egiteko erabiliko dute batzutan, baina beste asko bailarak estaltzeko. Lur horrekin zer egin arazo handia da. Horrez gain, tunelak lurrazpiko uraren kurtso natural guztia aldatuko du. Ekologikoki ekosistema guztia aldatuko du.
- kulturalki ere eragina du.

Europeizatzen ari gara, Euskal Herria hil nahian dabilta, ixilean.

Garbi utzi nahi izan dute Asanbladakoek, ohiko tren bultzatzearen alde daudela. "Baina trenak ez dauka zerikusirik AHTearekin. AHTea hegazkina da. Erabiliko den kontsumoak eta egingo txikizioak ez dauka zerikusirik betiko trenarekin. Elite batentzako tren da. Garestia izango da oso. Tren normalean herritarrak ibiltzen dira, bestean eliteko pertsonak bakarrik ibilik dira, hiri batetik beste lanagatik mugituko direnak. Guk betiko tren bultzatu nahi dugu".

Beti izkutuan

Europatik dator plana. Ibilbideen alternatibak Jaurilaritzak zehaztu ditu, EAEko Trenbide Sarearen Lurralde Plan Sektorialari buruzko txostenean. Abiadura Handiko Trenaren Aurkako Asanbladak salatzen duenez, "beti izkutuan izan den gauza bat da AHT. Baina orain behartuta egon dira argitaratzera, datorren urtean hasiko baitira obrak

Aramaio eta Arkaute artean. Udalei ere orain aurkeztu zaie txostena. Eta orain udalek bi hilabete izan dituzte alegazioak aurkezteko. Partikularrek urria aldera izango dute alegazioak aurkezteko aukera. Hortik aurrera espropiazioak hasiko dira. Hurrengo urtean hasiko dira lanak eta urte gutxiren buruan bukatu beharko duten. Badator Abiadura Handiko Trena". Honekin batera, zenbait alternatiba teknikoki ia ezi-nezkoak direla esan dute. "Baliarrainen adibidez, egin nahi dute Ibiur urtegiaren gainetik pasatzen da zati bat".

Eusko Jaurilaritzak kale-ratu duen txostenari erantzunez AHTAak beste txosten bat kaleratu du, gizarteko sektore ezberdinen artean zabaltzeko.

Udal gehienek oraindik ez dute jarrera zehatzik hartu. Baina AHTAak Goieki-ri gogorarazi nahi dio, "turismo berdea bultzatzeko apustua egin du eta AHTa horren kontra doa erabat, ingurune guztia txikituko baitu".

Sentsibilizazio kanpaina

3 urte daramatza AHTAak lanean, gizartea sentsibilizatzen. Hainbat ekintza antolatu dituzte ekainerako. Gaia gertuagotik ezagutu nahi duenak gonbidatu nahi dituzte.

Ekainaren 16tik 22ra: Ordiziako Barrenan AHTri buruzko erakusketa.

Ekainaren 24an: Itsasondoren hitzaldia.

Ekainaren 26an: Ataun-aren hitzaldia.

Loinaz Agirre

ZALDIBIA

Abiadura Handiko Trenari alegazioak

"Euskal Y" deituriko proiektuaren arabera, bi alternatibetako batean azaltzen denez, AHT pasa liteke Zaldibitik. Ataun aldetik etorri, Lazkaomendira igo, Miranda baserrian barrena jaitsi eta Elbarrenean zehar pasako litzateke. Horren ondorioz, GI-2133 kaminoa eta Amundarain erreka libratzeko, 600 metroko zubia egin beharko litzateke. Udalak uste du "Zaldibiak ez duela bere egiten proiektu hori eta, bestalde, momentu honetan burutzen ari den Zaldibiaren planeamendurako proiektuaren aurka doa zuzen-zuzen. Zaldidiko plangintza urbanistikoa alderdi geografiko, ekonomiko, historiko eta ingurugiroarekin loturikoak defendatu eta babesten ditu, eta AHTren

proiektua, Zaldibiaren nortasuna eta bere izatea arriskuan ipintzen dituelarik, alderdi edo interes horien kontra dago".

Orain arte esandako guzti hau dela eta, Udalak, legeak agintzen duenari jarraiki, zenbait alegazio aurkeztu ditu Euskal Gobernuan. Lehenik eta behin, Udalak honako kontsiderazio hau azpimarkatzen du: "Gaur egun Euskal Autonomia Erkigedean ditugun trenbide-sarean, 1995tik 2010 bitartean, 154.705 milioi pezeta gastatuko dira, AHTren proiektuan, epe berean, 420.000 milioi. Udalaren ustetan desoreka handiegia da".

Udalak uste du, gainera, "Madril eta Paris arteko pasaera soila baizik ez de-

larik, AHTak EAeko komunikazioa ez duela hobetuko. Hori bai, ondorio txarrak ekarriko lituzke hemengo lur eta igurugiroarentzat. Proiektu hau, Europako elite ekonomikoaren onerako dago pentsatua eta EA-Ean langabezia sortu baino ez luke egingo".

Eskolarteko pilota txapelketan garaile

Amaitu berria da Gipuzkoako Eskolarteko Pilota Txapelketa. Mutiletan, infantilen kategorian, txapel-dunak zaldibitarak ditugu; zehatz esanda, Ibon Gurrutxaga, Aratz Mendizabal eta Oier Urdangarinek osatzen duten taldea.

Hori dela eta, Gipuzkoaren ordezkari joan dira Euskal Herriko Eskolartekora. Joan den asteburuan

jokaturiko bi partidua, Bizkaia eta Arabaren kontra, irabazi egin zituzten; asteburu honetan jokatu dute Nafarroaren aurka. Txapelketa Zumarragako Beloki frontoian ari da burutzen.

Enzklosterle-ko bideo salgai

Dakizunez, joan den urteko abuztuaren zaldibitar koadrilan bat Alemaniako Enzklosterle herrian izan zen, herri kiroletan, batez ere, segan parte hartzen. Orduko irudiak bideo batean daude jasorik eta bideo hori eskuratu nahi duenak dei beza Kultur Etxera, 160338 telefonora. Prezioa: 2.500 pezeta.

Rufino Iraola

EROSKI KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

88 27 93

ORDIZIA

LEIAR

KRISTALDEGIA


ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea 88 60 70

BEASAIN



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurrira

Larunbat arratsalde irekita

Erakusketako eta faxa: 161606 - mugikorra: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

BEASAIN

**Sukaldeak
Ateak
Zorruak**

OSKARBI OINETAKOAK




Mota guztietako
eta adin guztien-
tzako oinetakoak.

Kick'ers

K. Nagusia, 25

88 19 44

ORDIZIA



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran ZERAMIKAK

88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN

ZERAIN

'Zerain Dezagun Fundazioa' sortu da

Orain arte Zerain proiektua bezala ezagutzen zen hori, ideia bat, proiektu bat zen baina ezertan gauzatu gabe zegoen. Orain dela urte pare bat batzorde bat osatu zuten hori egituratzeko, herrian inbertitzen ari den jendea (baserritar, artzain, ostalari...), Kultur Etxea eta Udalaren ordezkariarekin proiektua Udaletxetik atera eta nondik joan behar zuen aztertzeko. Ikusi dute, batzorde horren egitura egokiena fundazioa dela, batez ere kudeaketa, gestio eta arintasun mailan ematen dituen abantailagatik. Bai administrazioaren aurrean, bai kontabilidate aldetik, enpresa pribatuaren laguntzak hartzeko eta herritarren parte hartzea errazteko.

Ondorengo organigrama du fundazioak: lehendakaria alkatea izango da, lehendakariorde bat (dinamizatu-ko duena), bokal bat zinegotzia dena, beste bat zeraindarren ordezkari (herriko dinamika eramaten duen jendearekin talde bat sortu nahi da), beste bokala Zerainen lagunen ordezkaria (talde bat sortu nahi da bertakoak ez diren baina herriari laguntzen dioten jendearekin), idazkaria eta zuzendari gerentea (egunero-ko gestio eramango duena).

Fundazioak bereganatu-ko duen Zerain proiektuaren helburua, herriko biztanlegoa mantendu eta ahal bada ahaztea da. Hau 3 bidetatik lantzen dute: kontzientzia soziala, bizitza kalitatea eta etorkizun ekonomikoa. Gero Udalak bereak izango ditu, legeak agintzen dituenak, zaborrak, ura, gizarte laguntzailea...



Jose Antoni Ardantza, Lehendakaria, Zerainen izan zen 'Zerain Dezagun Fundazioa'-ren auzkizpenean.

"Denborarekin dena nahasten ari zen, Udaleko zenbait funtzio alde batera uzten ari ziren, Udaleko jendea Zerain proiektuan lanean ari zelako eta alderantziz ere bai. Fundazioak elkarte pribatu batek bezala funtzionatzen du, Udala, herriz, oso makineria mantsoa da. Adibide bezala, Udalak taberna bat edukitzea lege aldetik oso zaila da. Gainera Udalaren aurrekontua Zerain proiektuarena baino askoz ere txikiagoa da", adierazi digu Jakoba Errekondok.

Enpresa pribatuek subentzioak ematen badituzte, ordaindu beharreko zergetan beherapenak ekartzen dizkie. Orain arte zerbait egiteko terrenoa edo etxea erosi beharra zegoen, orain nagusiak zeditu egin dezake, eta horrek abantaila fiskalak dakartzio. Horrek joku asko eman dezake.

Fundazioak hiru proiektu ditu martxan: aterpetxea, mermelada industria txiki bat eta meatze edo minatako proiektua. Orain arte dauden bisiten kudeaketa zuzenean fundazioaren eskuetara pasatuko da.

Aterpetxea

"Bukatzen ari dira eta pentsatzen dugu uztaileko martxan egongo dela. Taldeak egun erdirako edo osorako etortzen dira, orain saltoa eman nahi dugu aste-bukaerak pasatzera etor daitezen", dio Jakobak. Berrez nekazalturismoa baka-rrik zuten. Albergan bate-rik autobuskada bat haur sartu liteke literetan, beste-rik 3 gela daude kalitate erdikoak izar bateko hotelaren antzera, eta koadrilen-tzat gela bat dago 10 litere-kin. Honekin ikusi nahi du-te zein publiko mota etortzen den, eta horren arabera ikusi zeinek funtzionatzen duen gehiago.

Mermelada lantegia

Aterpetxea dagoen erai-kuntza berean jarriko da. Orain arte 5 edo 6 etxeko-andre ari dira, beren base-rrietan mermeladak egiten. *"Ikusten da asko saltzen dela eta irteera ona duela, orduan legezatu egin behar dugu, batez ere osasun aldetik, merkaturatzea zabaltzeko beharrezko ikusten dugu. Zerain marka komertzial gisa erregistratuta daukagu, eta marka horretan enbo-*

tatzen hasiko gara. Hemen dugun ohitura da piskana-ka, gauza txikiekin hasi, no-la saltzen den ikusi eta pis-kanaka handitzen joan", adierazi du Jakobak. Herrian dauden fruituekin egi-ten dira eta denborarekin jende gehiago beharko da fruituak landu, bildu etabar egiteko.

Minak

Europatik onartua dago proiektua, 25 miloiko diru-laguntza da eta horrek he-men beste hainbeste jartzera behartzen dituzte. Industria aurreko ondare patrimonia-laren errestituziorako sare bat sortu nahi dute. Fran-tziako Dordoniako Udalare-kin harremanetan daude, haiek ola bat daukate, Gre-zian Xantis-eko Udalak par-te zaharraren erdian tabako fabrika bat berreskuratu nahi dute. Hirurek elkartu eta Feder fondoari laguntza eskatu diote.

"Gure inobazioa da, errestituzioa hasten den momentuan jendea etor-tzea. Errestituzioa bera produktu turistikoa izango da. Honekin lortzen dugu, oso dirutza handia behar duen lana, diru gutxirekin hasi eta bukatzen den bitar-tean diru sarrerak izatea la-nak jarraitzeko" azaldu di-gu Jakobak. Hasieran segu-ritateko plan bat egingo du-te, ranpa, zulo etabarretan, seinalizazioa ere bai. Gero ordenadoreko multimedia bidez bukaeran nola geratu-ko den ikusiko da. Bi kilo-metro t'erdiko trenbidea da-go, eta hor minerala joaten zen bide beretik jendea tre-nez joateko prestatu nahi dute.

M.A.

BEASAIN Ikastolaren inaugurazioa ekainaren 8an



Ikastola berri bat sortzea izan da gure erronka: lehengoari eutsi eta etorkizunari heltzeko prestaketa.

Aurtengo ikasturtea Senpereko merkatal gunean hasi zuen Beasaingo Ikastolak, Urbialdeko ikasgelak egokitu artean. Dagoeneko estreinatu dituzte haurrek gelak, eta igandean, ekainak 8, inaugurazio ofiziala izango da. *"Ikastola berri bat sortzea izan da gure erronka: lehengoari eutsi eta etorkizunari heltzeko prestaketa. Askok esan izan digute egun ez dagoela beste ikastetxe batetarako tokirik, ume gutxiago dagoela eta. Guk uste dugu, ordea, ikasle horientzako, gure seme-alabentzako nahi dugun hezkuntz bidea urratzeko behar beharrezkoa dugula ikastola berri bat: beti amestu izan dugun ikastola, eta lema horrekin antolatu dugun kultur astearen bidez, hainbeste zailtasunen artean egindako bidearen amaieran gure poza adierazi, atsedean hartu eta datorren urteari atzera, indartsu eta kemenez heldu nahi diogu"*, adierazi du Tere Irastorza Ikastolako zuzendariak.

Bi solairu ditu Ikastolak. 12 urte bitarteko haurrak daude, besteak Lazkaoko Ikastolan daude. Aurtengo matrikulazioak ondo joan zaizkie. *"Aterako direnak baino gehiago etorriko dira, eta ez bi urtekoak bakarrik,*

tarteko urteetakoak ere bai. Sendotzen hasi dela esan daiteke. Baldintza txarrenean hasi gara, eta hemendik aurrera egingo duguna aurrera egingo dugu. Asmatzen baldin badugu, dudarik gabe aurrera egingo dugu", adierazi du Pello Urretabizkaia Ikastolako bozeramaleak.

Inaugurazioarekin batera, Alkartasuna Lizeoarekiko zuten gatazka amaitu egingo da. *"Ekainaren 8rako akordioa sinatuta izango dugu. Guk inpuñazioa jasoko dugu eta Lizeoak dirua eman go dugu. Horren truke baimena eta kontzertazioa lortuko ditugu, Administrazio-*

tik", dio Pellok. *"Gatazka ez da epai judizial bategatik konpondu, akordio eta elkarritziketa bidez baizik"*, azpimarratu nahi izan du Tere Irastorza.

Inaugurazioa aitzaki hartuta astean zehar hainbat ekintza egin da, eta gaurtik igandera bitartean izango denaren berri jarraian duzue:

Ekainak 6: 19:30etan: Tresna, eskulan eta abarren erakusketa, Ikastolan.

Ekainak 7: 12:00etatik 14:00etara: Erakusketak zabalik eta bitartean marrazki lehiaketa Urbialde enparantzan. **17:30etan:** Aizkora saioa: Donato Larretxea eta Iñaki Azurmendi, Urbialden. **20:00etan:** Ikastolako guraso eta ikasleen arteko herri kirolak, Urbialden.

Ekainak 8: 9:30etan: Beasaingo puntu ezberdinetatik aterata, kalejira txistulari, trikitilari, txaranga eta zanpantzarrekin. **10:00etan:** Altxorren bila, Urbialde plazan. **11:50etan:** Txalaparta soina Urbialden. **12:00etan:** Zinta mozketa eta agurra. **13:00etan:** Han-

kapaloak Urbialde plazan. **14:00etan:** Trapala-bazkaria, San Martin enparantzan (bazkarien txartelak salgai izango dira 2.500 eta 1.000 pezetan, Ikastolan eta herriko tabernetan. **16:00etan:** Ume eta helduentzako jolasak. Ondoren, trikitrixa San Martin enparantzan.

Udan ere kirola

Estaligabeko Igerilekuak ofizialki ekainaren 15ean irekiko dira. Helduek 475 pezeta ordaindu beharko dute eta gazteek 275. Udako Kirol txartel bereziak salgai daude, bai igerilekukoa, bai beste kirolak egiteko ere.

Era berean, hainbat kirol programa ere antolatu dira: igeriketa ikastaroak, 'Kirol kolonia Euskaraz', 'Kirol abentura euskaraz', 'Abentura Naturan euskaraz', zaldiketa, eskalada, piraguis-moa, arku tiroketa, tenisa eta aerobica. Euskararen erabilpena bultzatu nahian ikastaro guzti hauek euskaraz emango dira.

Helduentzako programa bereziak ere badaude: kainoen jaitziera, espeleologia, hidrospeed eta rafting. Adimen urrikoentzat eta 3. adinekoentzat ere bai: Mantgym, Aqua-gym, tenisa eta mendia.

Izen ematea ekainaren 12tik 27ra egin beharko dira Kiroldegian bertan.

Kronista berria

Orain arteko kronista izan dugun Izaskun Salazarrek, lanak sortzen dizkion ezinak direla eta, ez du aurrerantzean Beasaingo kronikarik idatziko. Bere ordezkoren bila gabiltza. Beraz, interesatuok, jo GOIERRITARRA aldizkarira bertara.



Kutxa-txartela euskaraz. Jesus diez Hernandez, Iñigo Insausti Urrestarazu eta Miren Karmele Mujika Alustiza irratikasete banarekin sarituak izan ziren joan zen apirilean, Kutxa-txartela euskaraz erabilitako beasaindarren artean egindako zozketan. Sari-banaketa eguneko argazkia da honakoa.

ORDIZIA

San Fermin zozketa martxan

Inolaz ere utzi zitekeen 70 urtetik gorako tradizioa duen zozketa hau galtzen. Eguzki taberna itxi zela eta arriskuan zen San fermin zozketaren jarraipena, bazi-rudien ez zegoela tabernarik ardura hori hartzeko prest. Baina azkenean Etxezarreta kalean dagoen Txindoki tabernaren jabea den Jesus Mari Altunak hartu du zozketaren ardura hau.

Kontutan izan behar da urtero 100.000 errifa inguru saltzen direla eta bertatik ateratako diru portzentaia handi bat San Jose zaharren egoitzarentzat dela. Txindoki tabernakoek jakitera eman digutenez modu onean dihoa errifen salmenta eta aurtan ere 100.000ko kopuru horretara heltzeko asmotan dira.

Futbol txapelketa

XVIII. Lagunarteko Futbol Txapelketak amaitu berri du lehen fasea. Bertan 10 taldek txapela irabazteko euren aukerak galdu dituzte eta gainontzeko 8ek ligaxka jokatu beharko dute finalerdietara iristeko. Antolatzaileek bi multzotan banatu dituzte berriro ere 8 taldeok. "A" multzoa Morapios, E.R.Matxain Ileapaindegia, Loretos eta Wiskas taldeek osatzen dute eta "B" multzoa, berriz, Txiki Taberna, Urbitarte Sagardotegia, Tximista Sagardotegia eta Badagok.



Ibarbia etxeko obrek aurrera darraite eta etxea garai batean zuen itxura polita berreskuratzen hasia da.

Ondorengo 3 astebukaretan, beraz, ligaxkari dagozkion neurketak jokatu dira. Kanean geratu direnek ere beste norgehiagoka bat jokatzeko aukera izango dute sailkapenean izango duten postua erabakitzeko. Multzo bakoitzeko bi talde pasako dira finalerdiak jokatzera eta azkenik uztailaren 6an erabakiko da nor izango den txapelketaren irabazlea.

Esan goleatzaile nagusiak Tximista Sagardotegiko "Txofo" alde batetik eta Txiki Tabernako Andoni Berasategi izan direla bestetik. Maiatzaren 30ean zozketatu zen Txapelketan zehar ateratako errifa saritua eta berau Badago taldeko batek duenez bidaia bikaina egiteko aukera izango du.

Su gorria

Urtero bezela hasiak dira aurtan ere Santa Ana ikas-tetxean San Juan egunean dantzatzeko entseiuak. Hemendik animatu besterik ez egun berezi horretan suaren inguruan dantza egin dezazun.

Zikloturisten III. klasika

Ekainaren 15ean jokatu da Itxaropena Elkarteak antolatzen duen zikloturisten klasika. Antolatzeko orduan arazoren batzuk izan badiutze ere azkenean aurrera eramatea erabaki eta ibilbide hau aurkeztu dute: Ordizia-Larraitz-Ordizia. Guztira 80 Km izango ditu lasterketak eta txirrindulariek hiru gain igaro beharko dituzte: Larraitz birritan, Gaintza eta Altzo.

Saskibaloia

XVI. Herriko Saskibaloia Txapelketan martxan da. Ekainaren 2a eta uztailaren 18a bitartean jokatu dira neurketak estaligabeko pilotalekuan eta bertan Wiskas taldea saiatuko da iaz lortu zuen garaipena berriro eskuratzen. Partiduak astelehenetik ostiralera bitartean jokatu dira arratsaldeetan.

Tenis trofeoa

Kirol Patronatuak antolatu berria du Ordiziako II. Tennis Trofeoa. Izen-emate eguna ekainaren 9an amaituko da eta berau Majori Kiroldegian egin behar dute parte hartu nahi duten bikote guztiek. Izan ere Torneoa bikoteka jokatu da eta izena ematerako orduan ez da inolako baldintza berezirik eskatuko. Txapelketa ekaina eta uztaila bitartean izango da eta amaieran lehenengo lau bikoteek saria jasoko dute.

Dantzari txiki eguna

Aurreko alean dantzari txiki eguna ekainaren 1ean ospatuko zela adierazi genizuen arren, jakin Korpus eguna zela eta bertan behera uztea erabaki zutela Jakintza Dantza taldekoek. Berau irailaren 21era atzeratu dutela esan besterik ez.

Aitor Calvillo

ELOLA
ALTZARIAK
Etxeko eta sukaldeko altzariak

Poeta Lizardi, 2
TOLOSA
Tfnoa. 65 29 01

OSTASUN

BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierri 10 ☎ 88 61 14 ORDIZIA

IDIAZABAL

Hala behar dute egon herriko futbol talde ezberdinetako neska eta mutikoek. Izan ere denboraldian zehar egindako lanaren emaitzak orain ari dira jasotzen Ezolatzan nahiz kiroldegian aritzen diren taldeak.

Ezolatzako taldeetatik hasita, Kadeteen taldeak Gipuzkoako kopa lortu du. Joan den asteburuan Donostian Hondarribiaren aurka jokaturako finalean 3 eta 0 irabazi zuten herriarrek. Herriko taldea hasieratik izan zen nagusi, hasi eta berehala gola sartu zuten, ondoren garaipena eman zieten bi golak sartu zituzten. Partidua bukatuta herrian ospatu zuen taldeak garaipena, plazako arkupean egindako bazkarian.

Jubenilen taldea, berriz, iguera lortzeko lehian ari da. Mailaz igo ahal izateko Herrerako Sporting taldea-



Kadeteen taldea, kopa jaso ondoren.

ren aurkako kanporaketa irabazi beharko du. Bi partidura egingo da lehia, lehena aurreko asteburuan izan zen Ezolatzan eta bina berdindu zuten. Asteburu honetan Herreran jokaturako partiduan erabakiko da nor igoiko den.

Nesken taldeei dagokienez, Alebin mailako neskek ezin izan zuten Gipuzkoako txapelketako finala irabazi. Azpeitiako taldearen aurka

jokaturako partidua galdu egin zuten (0-2).

Nesken jubenil taldeak ere amaitu du denboraldia eta hauek sailkapenaren erdi aldean geratu dira. Federatuei dagokienez udaberriko torneoaren finalerdira iritsi zen talde hau eta denboraldi ona egin dute.

Pilotalekurako arduraduna

Udalak Pilotalekuko taber-

na eta inguruko instalazioetako arduraduna aukeratzeko deialdia egin du. Lanpostu hori lortzeko betebeharrak ondokoak dira: herrian bizitzea, 18 urtetik gora edukitzea, euskara menderatzea, egun guztian zerbitzua prest emateko egotea eta Udalarekin zorrik ez izatea.

Izena emateko epea ekainaren 18an (asteazkena) bukatuko da. Arduradun lanpostua nahi duenak zerbitzua zein talderekin beteko duen jakinarazi beharko du izena ematerakoan. Informazio gehiago behar duenak udaletxera jo dezake.

Maiatzari zegokioen ple-noan aukeratu zen bestalde aurten igerilekuetan lanean arituko den taldea. Garbiñe eta Maider Arrizabalaga eta Urtzi eta Irati Etxeberria izango dira udan herriko igerilekuetako arduradunak.

Xabier Urteaga

ZEGAMA

Xabier Azurmendi Euskadiko dantza txapeldun

Pentekoste jaietan 15 urte azpikoentzat ospatu zen txapelketan txapeldun suertatu zen Xabier Azurmendi zegamarrak eta Ianire Urbietabergararrak osatutako bikotea. Aurten goa bigarren txapela dute. 25 bikotek parte hartu zuten eta irabazleek bigarren 5 puntu eta erdi atera zizkionten. Xabier eta Ianirek 501 puntu batu zituzten, bigarren bikoteak Ekaitz Larrañaga eta Ainhoa Juaristik 495,1 eta hirugarrenak Alex Torre eta Josune Fernandezek 466,5.



Lehen kanporaketa saioan 16 bikote kanpoan geratu ziren. Bertan 2 fandango eta 2 arin-arin egin zituzten lehiakide bakoitzak. Bikote txapelduna Juantxu Urbietak entrenatzen du Billabonako Martin Dantza Esko-

lan, egunero aritzen direlarik entseiatzen.

Horretaz gain, bakar-kako saria ere, hau da mutiletan dantzaririk hoberenarean saria ere Xabierrek irabazi zuen. Zorionak beraz bikoteari!

Musika eskola-ko kontzertuak

Ekainak 19, osteguna: Lehen mailako ikasleen kontzertua 17:00etan zinean.

Ekainak 20, ostirala: Bigarren mailako ikasleen kontzertua, 18:30etan zinean.

Ekainak 21, larunbata: Kurtso bukaerako kontzertua, 19:00etan zinean.

Ekainak 22, igandea: Kale antzerkia, 19:00etan.

Kirol albisteak


● Futbitoan, Aitxuriko neska benjaminak lehen postua eskuratu dute Goierri mailan egiten den Udaberriko Txapelketan.

● Zegaman maiatzaren 31n ospaturiko trialsin frogetan, alebin mailan Ruben Zabaleta lehena izan genuen eta Ruben Casanova hirugarren. Benjaminetan, berriz, Joseba Arakama 6.

Eduarne Albizu

LAZKAO

Pelota indartu nahian



Egia esan, betidanik egon da Lazkaon pelotan jokatzeko zaletasuna Euskal Herriko hainbat txokoetan bezala. Orain dela urte batzuk ordea zaletasun hori askozaz handiagoa zela esan daiteke, plazako frontoi zaharra haur eta gaztez beteta ikusi zitekeen behintzat. Urte batzutan pelotarako jorera hori erdi galduta egon arren, azkeneko urte hauek indartzen ari da zaletasuna. Hau ulertzeko arrazoi asko egon daitezke, baina garrantzitsuenetako bat orain dela 10 urte pelota eskolaren sorrera izan daiteke zalantzarik gabe.

Lazkaon pelota eskola, haurrengan pelota zaletasuna indartzeko sortu zen. Iñaki Arruabarrena izan zen eskolaren sortzailea eta oraindik ere berak jarraitzen du guraso batzuen laguntzaz.

Gaur egun 40 bat gazte txo dabilta eskola horretan

adinaren araberako kategoriatan sailkatuta, aurrebenjaminetatik infantiletara. Guzti hauek eskuz egiten dute pelotan eta federatu gabeak dira noski.

Baina adinean aurrera doazenean ordea, federatzeko aukera ere ematen zaie. Gainera Lazkao Kirol Elkartek federatu hauekin klubon arteko hainbat txapelketetan parte hartzeko aukera du. Gaur egun, adibidez, 20 federatu inguru daude Lazkao Kirol Elkartean, esku pelotan eta paleta goman banatuta.

Hainbat txapelketatan parte hartzeko aukera ematen du federatu izateak. Hala nola, Lazkao Kirol Elkartek 4 urte daramatza klubon arteko Gipuzkoako txapelketan parte hartzen. Behin gainera, Zumarragaren aurka finalerdiak galdu zituzten, berdinduta gelditu arren beste taldea adinez gazteagoa zelako ez ziren

finalera pasa.

Bestalde, hirugarren urtez, Lazkaok herriarteko txapelketa ospetsuan parte hartu du. Esan behar da gainera, aurten txapelketa on bat egiteko esperantza zutela baina lehen kanporaketan aurkari gogorregia izan zen Amezketako taldea. Aurten taldea osatu dutenak hauek izan dira ordezkioak barne. Kadetetan Jon Dorronsoro, Jon Galarraga eta Iker Huarte, jubeniletan Joseba Aldasoro, Patxi Ruiz eta Eneko Aldasoro eta seniorretan, berriz, Pako Garmendia, Gelbenzu eta Ruiz I. Aurten baino zorte hobea izanez gero zozketan, seguru gaude kanporaketa pare bat pasatzeko aukera izango dutela datorren urtean.

Ikastolako gazteak sasoi betean

Areto futboleko mutilen talde bat Gipuzkoako txapelketarako sailkatu da infantiletan. Softboleko (beisbolaren antzeko kirola) infantil neskak Gipuzkoako txapel-dun izan dira, igeriketan mutil infantilak bezala. Pilotan bai mutil alebinetan eta bai neska alebinetan bigarren egin dute Gipuzkoako txapelketan. Xakean ere bigarren izan dira mutil alebinak.

Atletismoan ere emaitzak onak izan dira. Taldeka maila guztietan emaitza

onak lortu arren bakarkako emaitza batzuk izan dira aipagarrienak. Pisu jaurtike-tan Patxi Altunak lehenengo postua lortu zuen alebinetan eta Itsaso Galarragak berriz bigarrena nesketan. 3 km martxan eta infantil mutiletan lehenengo biak lazkaotarrak izan ziren, Migel Angel Rabanal eta Iraitz Imaz hain zuzen. Pertiga jauzian, berriz, bigarren eta hirugarren Iraitz Imaz eta Iker Aldasoro, azkenik aipatu behar Aitor Zatonek hirugarren tokia lortu zuela 150 metrotan.

Bake epaile berria

Aurreko alean aipatu genizuen bezala, Udal Plenoak aukeratu ditu hurrengo lau urtetarako bake epailea eta honen ordezkioa. Esan beharra dago Udal Plenoak proposatu egiten dituela hautagaiak eta izendapena Euskal Herriko Auzitegi Gorenak egiten duela.

Aukeratuak, Joxe Garmendia eta Eloisa Guijarro izan dira, azken hau ordezkioa izango delarik.

Ikusentzunezkoa

Ekainaren 11an, "Islandia" ikusentzunezkoa eskeiniko du Jabier Fernandezek Maizpide Euskaltegian gaueko 9etan.

*Urko Irastorza
Koldo Urrestarazu*

ARRIETA

JATE TXEA

☎ 88 00 02

OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak


RENAULT
AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 88 24 42 - 88 89 01
Faxa: 88 89 01
LAZKAO

SEGURA

Kirolariak protagonista

Euskadiko txapelduna

Duela hilabete inguru pisu-jaurtiketan Gipuzkoako txapeldun geratu zen Maite Telleriak, Euskadiko txapelketa irabazi zuen kadeteen mailan, maiatzaren 31n Gasteizen izandako proban. Maitek, 12,05 metroko jaurtiketa egin zuen 3 kiloko bolarekin, bere markarik hobereena ezarri eta Espainiako txapelketarako sailkatzeko 5 zentimetrora geldituz.



Ezkerrean Maite Telleria.

Eskubian Gipuzkoako Txapelketan parte hartu duten bolari herriarrak. Xepiño txapela eta trofeoarekin.



Gipuzkoako txapelduna

Gipuzkoako 18 bolatokitik parte hartu ondoren, Xepiño Agirre izan da erregularraren, Gipuzkoako txapeldun geratuz maiatzaren 25eko Urnietako saioaren ondoren. Martxeliño Agirre, berriz, txapeldunorde geratu zen. Xepiñori bola munduan falta zitzaion proba bakarra zen, berarentzat inportantea. Hauxe izan da segurarren sailkapena: 1go Xepiño Agirre (780 birla), 2. Martxeliño Agirre (775 birla), 6. Jokin Izagirre (754 birla), 13. Antonio Agirre (747 birla) eta 20. Joakin Izagirre (733 birla). Xepiñok parte hartuko ez badu ere, gainerakoak, ekainaren 7ko Euskadiko txapelketan izango dira Euban.

Kirol eskolarra

Maiatzaren 30ean Ordizian izandako Udaberriko Txapelketan, Naiara Oiarbidek urrezko domina lortu zuen 60 metroan, neska benjaminen mailan. Iker Agirrezabalek zilarrezko domina lortu zuen 150 metroko proban, mutil infantiletan.

Ekainaren 8an, denboraldiko azken mendi irteera izango dute mendi taldekoek. Parte hartzaileak, goizeko 8:00etan plazatik irtenda,

Elgetatik Bergarara joango dira. Denboraldiko 9 probak egin dituztenei, domina banatuko die mendi federazioak.

Txirrindularitza

Ekainaren 1eko kadeteen proba euriatik bertan behera geratu bazen ere, ekainaren 14an Segurako Txirrindulari Elkartek antolatutako jubilenen mailako "San Juan proba" ikusteko aukera izango da. Arratsaldeko 16:00etan plazatik irtenda, 96 Km egin ondoren, 18:25 aldera amaituko da. 140 txirrindulari inguruk parte hartuko dute, horien artean, Alex Rekondo herriarrak.

Futbola

Lau taldeek amaitua dute denboraldia. 1go Errejonalekoek 9. Postuan amaitu dute. 1go mailako jubenilak 2. geratuta, jubilenen ohorezko mailara igo dira. 1go mailako kadeteak 5. egin dute eta infantilak, ohorezko mailatik infantilen 1go mailara jaitsi dira.

Zapatu honetan, ekainaren 7an, goizeko 10:30etan, kadeteetako Aizkorri taldeak Real Sociedaden aurka lagunarteko partidua jokatu du.

San Joanak gainean

Jai batzordeak gauzatua du ekainaren 20tik 25erako festaren egitaraua. Honek, 4.500.000 inguruko aurrekontua du. Ideia bat egiteko, ostiralean 20an, txosnek eta tabernek ordainduta Drindots taldea. Zapatuan 21ean, koadrilen eguna, arrantza txapelketa, bola eta toka, txirrindulari proba, plater tiraketa, pregoia, txistularien alardea eta gauez Etzakit taldea. Jaietan 22an, Euskadiko Dantza Txapelketa, Tuterako jotariak, umeentzat antzerkia eta Egan taldea. Astelehenean 23an, umeen eguna, marrazki txapelketa, umeen danborrada, arbola jartzea, San Joan sua eta Kilkir txaranga. Asteartean 24an, San Joan prozesioa, herri kirolak, pelota partiduak, Oria txaranga, disfrazak, gauez Korosti dantza taldea eta Agirre taldea. Asteazkenean 25ean, jubilatuen eguna Atsedenen, toka herrikoia, pelotako finalak, poteo elegantea eta gauez Maixa eta Ixiar. Egitarau zehaztua hurrengo alean.

Labur labur

● Maiatzaren 22an, Jon Urrujulegi idazle segurarren lehen nobela kaleratu

zen. "Arragoa" izenburua duen liburua, nahiko autobiografikoa dela komentatu zuen Jonek berak, liburua-aren aurkezpeneko ekitaldian.

● Laiotz Herri Eskola-ko 3., 4., 5. eta 6. mailakoek 3 eguneko irteera didaktikoa izan zuten Zarautzen, maiatzaren 21, 22 eta 23an. Haur Hezkuntzakoek (3, 4 eta 5 urtekoak) eguraldi ona den batean, Oiangua egingo dute egunpasa. Lehen Hezkuntzako 1go ziklokoak (6 eta 7 urtekoak) Gasteizera egingo dute txangoa Zegamako Herri Eskolakoekin batera. Ikasturteari dagokionez, ekainaren 20an amaituko dute kurtsoa eta ekainaren 9tik aurrera gainera, goizez bakarrik izango dituzte klaseak.

● Ekainaren 12an, jubilatuek urteko lehenengo eskurtsioa egingo dute Nafarroa aldera. Hamaiketako eta bazkaria Milagron izango dituzte eta ondoren Erriberri bixitatuko dute.

● Ekainaren 14an, berriz, Oñatin izango den 12 kilometroko jubilatuen ibilaldi neurrian parte hartuko dute herriko bi taldek. Joxepa Telleria, Anttoni Aldanondo, Bittori Telleria eta Loren Ariztimuño alde batetik eta Patxi Imaz, Martxeliño Murua, Xabin Aldanondo eta Joakin Izagirre bestetik. Ondoren bazkaria izango dute.

● San Joanetako danborrada nahiz txistu alarde-rako txintxo-txintxo ari da entsaiatzen jendea.

● Valladolidtarak, Txutxi, Maria eta konpañia gonbidatuta zaudete Segurako festetara. Azaldu!

Joseba Telleria

ATAUN

Lareo inguruko aterpe plana



Maumenditik Lareo bitarteko eremuan turismo azpiegitura bat eraikitzeke aukera aztertzen ari da Udala. Egitasmo edo proiektu hau Iparraldeko enpresa batek aurkeztu du eta oraingoz behin betiko izaerarekin ezer finkatzeko badago ere, bertan jasotzen dena hauxe da: asteburuak pasatzeko borda antzeko batzuk egingo lirateke urtegi inguruan, tamaina edo neurri ezberdinetakoak; horiez gain, frontoi txiki pare bat, igerilekua... eta "urbanizazio" honetatik kanpo, kotxeak uzteko aparkalekua. Hori guztia Ataungo lurretan kokatuko litzateke.

Alderdi politiko guztiei planaren berri eman ondoren, herriaren etorkizunean eduki dezaken garrantzia ikusita, gai honi buruz pentsatu eta ausnartzeko epe bat ireki du Udalak, merezi duen arretaz, alderdi onak eta txarrak zeintzu izan daitezkeen aztertu eta horren

arabera erabakitzeke. Gainera, plana aurkeztu duen enpresari xehetasun gehiagoko eskatuko zaio eta egoiak diren estudioak egingo dira bere kasuan, erabakia hartzerakoan lagungarri izango direlakoan.

Udala intsumiso

Sagrario Eskisabelek, alkatea izandakoak, alkate eta zinegotzi izateko urtebeteko inhabilitazio zigorra jaso du, Donostiako epaitegi ba-

tek hala erabakita. Gainera, sei hilabetetan eguneko 1.000 pezetatako isuna ere jarri dio. Udalak bere garaian hartutako jokabideari eutsiz, ejerzitoarekin ez kolaboratzea leporatu zioten eta hori desobedientzia delitutzat joz, aipatutako erabakia hartu du epaitegiak.

Labur-labur

● Maiatzaren 23an XVI. Eskolarteko gaztetxoek Gipuzkoako bertso txapelketaren finala ospatu zen Usurbilen. Txapelketa honetan 14 urte bitarteko gaztetxoek hartzen dute parte, launakako taldeak osatuz honako lan hau burutzen dutelarik: agurra prestatuta, gai bati bertsoak botatzea (bien artean) eta 4 oinak emanda bertsoa osatzea (beste biek). Gipuzkoa osotik aurkezturiko 11 taldeetatik 4 iritsi ziren final horretara, horien artean

Goierrikoa. Eta Goierriko talde honetan, hain zuzen ere, 4 ataundar genituen: Haitz Aierbe agurrean, Aitzol Munduate eta Oier Zurutuza oinak emanda eta Iban Urdangarin gaia jarrita (Beasaingo Irati Goikoetxearekin batera). Zorionak!

● Areto futboleko denboraldi ofiziala bukatutzat emateko ez da asko falta, herriko taldeei dagokienez, behintzat. Izan ere, 2. mailako mutilek dagoeneko bete dute aurtengo euren lana eta 2. buelta ona egin dutela esan behar. Neskak, berriz, Gipuzkoako txapelketan dabilta eta ekainak 6-7ko asteburuan jokatu dute azken partidua Legorretaren kontra Ataunen bertan. Animo, beraz!

● Bizikleta zaleentzat ohar pare bat: batetik, gogoratu herriko zikloturistek "atseden" hartuko dutela datorren ekainaren 8an, egun horretan, Agauntza K.E.ak antolatuta, XXXIII. Ataun San Martin proba ospatuko baita herrian, Euskaldun Torneoaren barruan, elite eta 23 urtez azpiko txirrindularientzat. Irteera ordua 9etan izango da. Proba garrantzitsu hau delata, zikloturistek hurrengo ibilaldia ekainaren 15ean izango dute, Ataundik Aguraina bitarteko joan-etorria egingo dutelarik (125 Km gutxira).

Josune Aldabe

Ataun 1997: lehendabiziko gau-ibilaldia

Ataun Kirol Elkartek proposatzen digu ibilaldi hau, urteko gaurik motzenez, ilargi betekoan, gainera. Eguna, beraz, ekainak 20 eta irteera ordua, iluntzeko 10ak. Ibilbidea, berriz, honako hau: San Martin plazatik abiatuta, Intsustira eta hemendik Igaratzara; itzulera, Enirioraino bide beretik eta gero, Lareotik pasatuz Arrondora jaitsi, Aizkoate Kultur Elkartean izango delarik bukaera.

Ilunabarretik egunsentiarate menditik zehar ibili nahi duen edonori, herriko zein kanpokoari, ohar hau: komeni da makila, edalontzia, motxila, linterna, jana eta fruta, oinetako sendo eta arinak... eramatea. Izenak ekainaren 13rako Jexux Aizpurua, Xabier Eskisabel edo Jexux Mari Goikoetxearekin ematea ere eskatzen da.

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 88 02 43 - 88 01 33
BEASAIN

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 ☎ 88 98 44 **BEASAIN**

Inprimategia

EDUZKI

Nafarroa Etorbidea, 9
☎ 88 94 82
BEASAIN

ORMAIZTEGI 17 haurrek egin dute Lehen Jaunartzea



Jaunartzea egin zuten 17 haurrak elizako atarian.



Herri Eskolako irakasleak Berzikli saria jasotzen.

Maiatzaren 25ean gure herriko San Andres parrokiaren 17 haur izan ziren Lehenengo Jaunartzea hartu zutenak. Elizkizuna eguerdikio 12.00etan hasi zen, eliza senditar eta ezagunez gainezka izan zelarik.

Lehenengo aldiz Jauna hartu zuten haurrak: Jon Agirre Arruabarrena, Aritz Alberdi Olariaga, Igone Azurmendi Irizar, Iñigo Borde Lasa, Martina Eskisabel Azpiazu, Unai Galarraga Urbiztondo, Maialen Galdos Agote, Ainhoa Garcia Zabala, Xabier Gisasola Iurrita, Borja Irizar Otamendi, Nerea Iztueta Dorronsoro, Goizeder Lizarralde Mujika, Idoia Maiz Baztarrika, Iñigo Mendia Vinagre, Iñaki Mendizabal Garmendia, Adur Ruiz de Azua Unzurrunzaga eta David Santesteban Martinez izan ziren.

Herri Eskola saritua

Sasieta Mankomunitateak aurten ere eskola arteko lehiaketa antolatu du. Hiru sari banatu izan ditu, beraien artean II. Berzikli saria dagoelarik. Berau San Andres Herri Eskolari eman diote. Saria National Geographic-en bilduma izan dute.

Beste bi sariak III. Kartel

lehiaketa eta minimizazioaren hamar legeak izan dira. Lehenengoari dagokion saria Ordiziako Urdaneta-Oianguren ikastetxeak jaso du; bigarrena, berriz, Urretxu-Zumarragako Ikastolari eman diote. Azken bi talde hauek Bidarraira rafting egitera joateko bidaia eta oroigarritzko plaka jaso dituzte.

Saskibaloian neskak txapelkun

Eskolartean egiten diren kirol txapelketen barnean Herri Eskolako alebin mailako neskak garaile gelditu dira saskibaloian dagokionean.

Finala herrian bertan jokatu zuten Alkartasuna Lizeoko nesken aurka. Urrezko domina jaso dute ormaiztegiarrek. Garaile gelditu zen saskibaloia taldea ondorengo 19 neskek osatzen dute: Maria Silva, Uxue Garmendia, Lierni Ormazabal, Irati Mujika, Olaia Izagirre, Eli Jaka, Kizkitza Arratibel, Miren Betegi, Amaia Iturri eta Leire Murua.

Aitziber Murua



Saskibaloia taldea osatzen duten 10 neskak garaikurrekin.

GALDOS

- ➔ Egurrezko zoruak
- ➔ Mokatak
- ➔ Sintasolak
- ➔ Pintura eta barnizatuak

LENZERIA - LURRINDEGIA

Igartza Oleta, 12 ☎ 88 26 89

BEASAIN

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia & edergintza

Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak

Iturtxo, 5 ☎ 16 22 56 **ORDIZIA**

GOIERRIKO ZURAK

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e. a.

Hiribarren, z/g
☎ 88 80 23 **LAZKAO**

Bruno Imaz edo musikari isila

Erdal esaera zahar baten «inor ez da profeta bere herrian» dio eta esan genezake horrelako zerbait pasa dela Bruno Imaz Ganzarain musikariarekin. Bestalde, ez da lehenengoa; horixe bera gertatu zitzaigun Jose Antonio Erauskin Tolosarekin, orain dela urte batzuk. Erretereriako Musikasteri esker jalgi da plazara Bruno Imaz Ganzarain musikari zaldibitarren izena; eta bidezko deritzogu guk ere, nor izan genuen hobeto eza gutze aldera, haren biografiaren gainean hitz bi egiteari.

Ni gogoratzen naiz Brunoz. Seguru aski Santa Fe eguna izango zen, eta egun horretan bera aritu zen elizan organoa jotzen. Gotzon Garatek esango lukeen moduan, horrela gogoratzen ditut haren hazpegiak: gizon bajuxta, atzeraka orratuturiko ileturiduna, esku fin, musu gorrixka, sudur motxa eta traje grisarekin dotore jantzita.

Zaldibiko Kanpain kale-etxean jaio zen Bruno Imaz 1997ko urriaren 5ean, Santa Fe bezperan. Eta Donostian zendu, 1972ko abuztuaren 25ean. Baina Brunoren senide guztiak ez ziren Kanpainen jaio, ezta Zaldibian ere. Gurasoak Atauna ezkondu ziren eta han munduratu bide ziren seniderik zaharrenak; gero, Zaldibira aldatu, Karreranea etxera, eta hemen sortu ziren beste batzuk; azkenik Karreraneatik 25 metrotara dagoen Kanpainan aldatu ziren eta hemen jaio ziren bi gazteenak, eta horien artean Bruno. Anekdotak moduan konta dezagun, gurasoek Karreranean

segi izan balute, bi musikariak etxe beretan jaioko ziratekeen, Jose Antonio Erauskin ere Karreranean jaioa baitzen. Ana Maria Fernandez Castellon zaragozarrarekin ezkondu eta lau seme-alabaren (bi neska eta bi mutil) aita izan zen Bruno; oinordekorik gehienek Donostian segitzen dute, bat Bilbon bizi bada ere.

Kokatu ditugu, beraz, Bruno jaio zeneko ingurua eta giroa; haren musikari bokazio eta grinaren gainean mintzatzea dagokigu orain. Herriko beste umeak bezalatsu (beharbada, baserrikoak baino gehiago), maisu zaharrek eskolan apur bat ibili eta gurasoek, haren gogoak ase nahian, Tolosako Mokoroa maisurengana bidali zuten pianoa, organoa eta konposizioa ikastera.

Organista titular edo ofizial inongo parrokiatan izan ez bazen ere, urte luzez bete zuten postu hori Donostiako Santa Maria Basilikan, hau da, Juan Urtegak kargua utzi eta Jose Manuel Azkue hartu arte. Hain zuzen, zaldibitarren eraginez eta bultzadari esker konpondu zen eliza horretako Cavaillé-Coll organoa. Bestalde, inoiz ez zuen oztoporik jarri izan edozein lekutan organoa jotzeko. Hori dela eta, Donostiako beste puntu batzuetan nahiz Gipuzkoako herri askotan oso ezagun eta estimatua zen.

30 urte baino gehiagotik Orfeón Donostiarrako pianista titularra izan zen; halaber, orfeoi horretako tenore



ere izan zen. Aro honetan, fotokopiadorek ez zegoelarik, partiturak eskuz kopiatzen zituen; hauetako batzuk Erretereriako Eresbilen daude gorderik eta benetako arte-lan jotzen dituzte adituek (La Vida Breve de Falla, Katiuska, etab.)

Konposatzailetzan ere lan handia egin zuen. Obra polifonikoa nahiz bestelako asko burutu zuen: orkestratuak, koralak, bakarlarientzat organo, piano edo txistuz lagunduta jotzeko. Obra hauetariko batzuk SGAEn (Espainiako Autoreen Elkartea Orokorra) erregistraturik daude eta beste batzuk aurki erregistratzeko zain.

Jakina dago haren espresamolde eta adierazpidea musika izan zela eta, euskaldun zen aldetik, lan eta musika-pieza herrikoiak ugari ditu. Aginte-gizon eta zenbait pertsonalitaterentzat ere konposatu zituen hainbait martxa eta himno.

Hona hemen obra batzuen izenburua: «Recondo» (banda), «Aupa Gazte-lubide!» (banda eta txistua), «Recuerdos de la fanfare»

(banda), «Erromerian (txistu, coro eta dantzaz)», «Virgencita cantaba», «Clarín vence al ogro», «¿A dónde vas?», «Fiesta de Reyes», «Agur, Ernio», «Dantzari gabiltza», «Quiero ser», «Marcha nupcial», «Meditación», etab. Hain zuzen, sail honetan aipatzen ditugun lehen bost obrak maiatzaren 18tik 24ra Erretererian egin den XXV. Musikasten jo dira.

Damurik, Zaldibian ez da ezer egin herriko seme honen mendeurrena ospatzeko, eta zerbait egin behar genuela iruditzen zaigu. Beraz, inor mintzeko asmorik gabe, gure kritikatzat Udal eta kultura alorrean erantzunkizuna dutenengana begira uzten dugu. Gainera, oraindik ez da berandu, eta borondate apur batekin gauzak erraz konpon litezkeela uste dugu.

Azkenik, Bruno hil zenean Donostiako egunkari batean haren omenez idatzitakotik hitz batzuk zeharrratutako ditugu hemen, itzulpen librean: «Brunorentzat instrumentu zoragarri hori (Cavaillé-Coll pianoa) jotzea biziaren erdia zen. Maite zuen benetan, musika herrikoia maite zuen bezalaxe. Bruno Imaz gizon sentziloa zen, ona, hainbat eta hainbatekin musutruk kolaboratu zuena. Problema ikusteko, begi zorrotza zuen; kostunbrista aparta, herrikoia; folkloreaken sustatietara jo izan zuen, hau bere esanahirik zabal eta juxtuenean harturik».

Rufino Iraola



1954ko jaunartzea Ordizian

Aingeru aurpegia duten haur hauek, ordiziarrak dira, beraien lehenengo jaunartzearen egunean ateratakoea da. 1947 eta 1946 urtean jaiotakoak dira argazkian ageri direnak. Klaratxo dendakoak utzi digu argazkia. Argazkian azaltzen diren askok, igandean, ekainak 8, "kinto" bazkaria izango dute. Ondo pasa!



- ✓ Sukaldeko altzariak
- ✓ Elektragaiak

Mariaratz, 4 ☎ 88 86 84
BEASAIN




Sagardotegia

aulia

Aulia-enea
☎ 80 60 66

LEGORRETA



UDA IKASTAROAK - UZTAILA 97

Kanpo irteerak egiteko aukera, Goierri ezagutuz eta euskaraz biziz



EUSKALTEGIA

IKASTAROAK		MATRIKULA EPEA	MAILAK	ORDUTEGIA
3 ASTEKOA Uztailaren 4tik 24ra	4 ASTEKOA Ekainaren 27tik uztailaren 24ra	Ekainaren 24ra arte	Euskalduntzea Alfabetatzea Sakontzea EGA	3 ordu: 10-1 4 ordu: 9-1 5 ordu: 8,30-2

INFORMAZIO GEHIAGO

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 88 93 40

Udalak ikasleei matrikula subentzionatuko die.



☎ 88 96 67 **ZALDIBIA**

farma etxe

Angela San Juan Gonzalez
Farmazian Lizenziatua

**Oinak
zaintzeko
hilabetea**

DrScholl's

Profesionalentzat promozioa



IREKITZE PROMOZIOAK

INAUGURAZIOA EKAINAREN 7AN

- ✗ HAURRENTZAKO ELIKAGAIK ETA OSAGARRIAK
- ✗ KOSMETIKA
- ✗ BELARDENDA ETA DIETETIKA
- ✗ ORTOPEDIA
- ✗ HIGIENE PRODUKTUAK
- ✗ HAURDUNALDI PROBAK
- ✗ PISU ETA TENTSIOAREN KONTROLA
- ✗ BELARRITAKOENTZAT ZULOAK

URDANETA, 54

Tfnoa. eta Faxa: 16 18 79

ORDIZIA

DENONTZAT



PARA TOD@S

Herria
euskalduntzeko
eta alfabetatzeko
bidean hemen
gaituzue azken
hamar urteetan
bezala zuen
zerbitzura.

BEASAINGO



UDAKO IKASTAROA 97

- EKAINAREN 30etik UZTAILAREN 24ra
- Matrikulaldia: ekainaren 9tik 20ra
- ORDUTEGIA:
 - ✗ EUSKALDUNTZEA: 9etatik 13:30etara
 - ✗ ALFABETATZEA: 9etatik 12etara
 - ✗ EGA: 9etatik 12 etara
- PREZIOA:
 - ✗ EUSKALDUNTZEA: 5.200.-
 - ✗ ALFABETATZEA ETA EGA: 4.200.-

San Martin Plaza, Kultur Etxea
88 90 94 BEASAIN

BEASAIN

UDAN ERE KIROLA ZURE ESKU




UDA
97

ANTZIAR KIROLDEGIAN

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

ANTZIZAR UDAL - KIROLDEGIA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gazteria eta Kirol Departamentua



BESAINGO UDALA
GAZTERIA ETA KIROLAK